ADMINISTRAZIO-BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA

ZERBITZUEN KONTRATUA

Prozedura irekia

Xedea: “EMAITEK INDUSTRIA HOBEA programa kudeatzen laguntzeko idazkaritza teknikoa”

Espediente-zk.: 2026007

Edukia:

kontratuaren klausula espezifikoak.

Baldintza orokorrak.

Eranskinak

SUMARIO

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK
..... ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.
¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
1.- KONTRATUAREN XEDEA 4
2.- KONTRATU-EZAUGARRIAK DITUZTEN DOKUMENTUAK 4
3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA. 4
4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA 5
5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK 5
6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO BETEARAZPEN-EPEA. LUZAPENA. 5
8.- BERMEAK. 5
9.- ASEGURUAK. 6
10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA: 6
11.- BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK. 6
12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN-, GIZARTE- EDO LAN-ARLOKO BESTE BETEBEHAR BATZUK 6
13.- ZEHAPENAK. 7
14.- AZPIKONTRATAZIOA. 7
15.- GAUZATZE-MAILA EGIAZTATZEA, HARRERA ETA BERME-EPEA 7
16.- KONTRATUA ALDATZEA. 7
17.- SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK 7
18.- KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK. 7

II. - ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK.
¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
19.- ORGANOAK ETA ERREGISTROAK 8
20.- IZAPIDEAK ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA 8
21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BALIABIDEEN ATXIKIPENA 8
22.- ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK. 9
23.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK: 12
24.- GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA 12
25.- ESKAINTZA ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA 13
26.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK 14

III. - BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK.
¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
27.- KONTRATUA LAGATZEA 15

BALDINTZA OROKORRAK 16

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA GAI OROKORRAK. 16
1.- KONTRATUAREN XEDEA. 16
2.- KONTRATU IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK. 16
3.- KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA. 16
4.- GAI HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LAN BALDINTZAK, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN GIZARTERATZE ETA LANERATZEA, DESGAITASUNEN BAT DUEN PERTSONA KOPURU EDO PORTZENTAJE ESPEZIFIKO BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA ETA DATUEN BABESA. 16
5.- LIZITAZIOAREN AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIAZKO TRAMITAZIOA ETA AURREIKUSITAKO BALIOA. 17
6.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA. 17
7.-PREZIOAK BERRIKUSTEA. 17
8.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA EDO KONTRATUAREN IRAUPENA. LUZAPENA. 17
9.- BERMEAK. 18
10.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK. 18

II.- LIZITAZIOA. 19
11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK. 19
12.- ESKAINTZAK AURKEZTEA. 19
13.- A GUTUN-AZALA «AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK». 20

III.-GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA. 23
14.- ESKAINTZAK BAZTERTZEKO ARRAZOIAK ETA ARGIBIDE ESKAERAK. 23

15.- AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN DOKUMENTUAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA. 23
16.- JUDIZIO BALIOA APLIKATZEA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEN BITARTEZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA. 23
17.- FORMULA BITARTEZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA. 23
18.- ESKAINTZAK EBALUATZEA. 24
19.- BERDINKETA EBAZTEKO IRIZPIDEAK. 24

IV.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA. 25
20.- ESLEITZEKO PROPOSAMENA. 25
21.-ESLEITU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA. 25
22.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA. 26
23.- KONTRATUA GAUZATZEA. 26

V.- KONTRATUA GAUZATZEA. 27
24.- KONTRATUAREN ARDURADUNA. 27
25.-ZERBITZUAK GAUZATZEA. 27
26.- GAUZATZEKO ERABILITAKO BITARTEKOAK. 28
27.- LAN ARLOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOKO BETEKIZUNAK. 29
28.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK. 30
29.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA. 30
30.- ARRISKU PENALAK ETA LEHIAREN AURKAKO JARDUERAK PREBENITZEKO SISTEMA. 32
31.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIALAREN ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK. 32
32.- ZIGORRAK. 33
33.- PREZIOA ORDAINTZEA. 33
34.- KONTRATUAREN ALDAKETA. 34
35.- AZPIKONTRATAZIOA. 35
36.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEE-KO KIDEAK ALDATZEA. 35

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA. 37
37.- BETETZEA: ENTREGATZEA, HARTZEA ETA LIKIDATZEA. 37
38.- BERME EPEA ETA BERMEAREN ITZULKETA. 38
39.- SUNTSIARAZTEA. 38

VII.- GORABEHERAK ETA BERRIKUSPENA 39
40.- GORABEHERAK. 39
41.- EKINTZEN BERRIKUSPEN ERREGIMENA 39
ERANSKINAK 40

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.

i

1.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea

1.1.- definizioa: Idazkaritza teknikoa, EMAITEK INDUSTRIA HOBEA programa kudeatzen laguntzeko, preskripzio teknikoen agirian ezarritako baldintzetan.

1.2.- Loteen banaketa: ez. Kontratuaren xede den prestazioa prestazio bakartzat jotzen da, ez zatigarritzat, adjudikaziodun bakar batek egin beharreko unitate funtzionala delako.

Xedea	Kode nagusia
Enpresa-analisirako aholkularitza zerbitzuak	72221000-0

1.4.- Jarduerak sailkatzeko beste sistema batzuk: ez.

1.5.- Traktua: segidakoa**.**

1.6.- Beste ezaugarri zehatz batzuk: ez**.**

2.- KONTRATU-EZAUGARRIAK DITUZTEN DOKUMENTUAK

Baldintza orokorren 2. klausulan adierazitakoak:

3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA.

3.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 30.000 eurokoa da, gehi 6.300 euro BEZagatik, eta honako urteko ordainketa honi/hauei dagokie:

2026: 25.000€

2027: 5.000€

5.1 klausulan adierazitakoaren arabera, prezioa unitateen arabera zehaztuko da. Aurrekontu horren benetako gastua botere adjudikatzailearen benetako premiek baldintzatzen dute, ez baitago behartuta unitate-kopuru jakin bat eskatzera, ez eta osorik gastatzera ere.

Lanbide-profila	Lanaldiagatiko gehieneko prezioa (bataz beste 8 ordu/egun)
Aholkulari arduradunak eta teknikariak	640 euro gehi BEZaren 134,4 euro.

Adierazitako aurrekontua/aurrekontuak gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

Adierazitako aurrekontua(k) egokia(k) d(ir)a merkatuko prezioetarako, bat etorriz xehakapen honekin (BEZik gabe):

- Zuzeneko kostuak: % 80.
- Zeharkako kostuak: % 14.
- Industria-mozkina: % 6.

Nolanahi ere, adierazitako urteko kuotetan banatzea ez da mugatzailea izango; beraz, guztizko balio zenbatetsia soilik izango da gastuaren gehieneko muga kontratu osoan.

Ondorio guztietarako, ulertuko da adjudikaziodunak proposatutako eskaintzan eta prezioetan kontratatutako prestazioak betetzeko beharrezko gastu guztiak sartzen direla, hala nola aseguruak, garraioak, eskura jartzea eta zergak, BEZa izan ezik.

3.2.- Aurrekontu-aplikazioa: SPRIren aurrekontuetako 2449900/50 kontabilitate-errubrika. Aurrekontu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko 2023rako Aurrekontu Orokorrean daude jasota, eta hurrengo ekitaldietan ere aplikatuko dira.

3.3.- Aurreratutako izapidetzea: ez.

3.4.- Gastua kofinantzatuta dago: ez.

4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

4.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia honako hau da:

Lizitaziorako aurrekontua (BEZik gabe)	30.000 euro
Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe)	----
Lizitatzaileei ordaindu beharreko sarien edo primen zenbatekoa (BEZik gabe)	----
Behin-behineko aukeren zenbatekoa (BEZik gabe)	----
Luzapena (BEZik gabe)	30.000 euro
BALIO ZENBATETSIA	60.000 euro

4.2.- Kalkulatzeko metodoa:

Erabilitako kalkulu-metodoak prozedura hau hastean zeuden merkatuko ohiko prezioak hartu ditu kontuan, kalkulua egiteko aurreko 12 hilabeteetan adjudikatutako antzeko kontratuen balioa oinarri hartuta, lizitazio honen xedean aurreikusitako kantitate- eta balio-aldaketen arabera doituta.

5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK

5.1.- Prezioa zehazteko sistema:

Prezioa egikaritze-unitateen arabera zehazten da.

5.2.- Prezioa ordaintzeko modalitatea: prezioa ordainketa partzialen bidez ordainduko da, eta ordainketa hilero egingo da, dagokion faktura jaso eta SPRIko kontratatuaren arduradunak ikus-onetsi ondoren.

5.3.- Prestatzeko eragiketak daude: ez.

5.4.- Prezioak berraztertzea: ez.

5.5.- Epe- edo errendimendu-xede jakin batzuk betetzeagatiko prezio-aldaketari buruzko klausula: ez.

6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO BETEARAZPEN-EPEA. LUZAPENA.

6.1.- Guztirako iraupena, erabateko exekuziorako epea edo gehieneko epea: 1 urte.

6.2.- Hasiera-data: Kontratua formalizatu eta hurrengo egun balioduna.

6.3.- Epe partzialak: ez.

6.4.- Kontratuaren luzapena: Kontratua luzatzea: bai, SPRIk eskatuta, iraupen-epea behin luza daiteke urtebetez (1).

7.- PUBLIZITATE-GASTUAK Ez dago halakorik

8.- BERMEAK.

8.1.- Behin-behineko bermea: ez.

8.2.- Behin betiko bermea: Bai, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren prezioaren % 5eko zenbatekoan, BEZik gabe.

8.3.- Berme osagarria: ez.

8.4.- Zilegi da bermeak prezioa atxikiz eratzea: ez.

8.5.- Harrera partziala eginez gero, kontratistak bermearen zati proportzionala itzultzeko edo ezerezteko eskatu ahal izango du: ez.

Bermeak SPRI – Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren alde eratuko dira (IFZ: Q-4800789-B). Bermea bankuko abala edo kauzio-asegurua bada, jatorrizko agiriak SPRIren bulegoan entregatuko dira, kontratazio-mahaiko idazkariari zuzenduta.

9.- Aseguruak.

Kontratistak nahitaezko aseguruak izan beharko ditu, bai eta adjudikaziodunak kontratua formalizatu aurretik egiaztatu behar dituen berariazko aseguru hauek ere:

- Poliza mota: erantzukizun zibileko asegurua.
- Baldintza espezifikoak: arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko asegurua edo produktuaren erantzukizunekoa, gutxienez kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbateko bereko kalteak estaltzen dituena, hau da, 60.000 euro.

  Gainera, kontratuaren iraupenaren arabera hala dagokionean, kontratua berritzeko edo luzatzeko konpromisoa aurkeztu beharko du, kontratua gauzatzen den bitartean estaldurari eutsiko zaiola bermatzeko, **VI**. **eranskinean** agertzen den ereduaren arabera.

10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA:

Ez dagokio

11.- BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK.

11.1.- Gizarte arlokoak edo enpleguari buruzkoak:

11.1.1.- Baldintza orokorren 28.2 klausulan jasotakoak, 7/2016 Legea, apirilaren 7koa, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa.

11.1.2.- Beste batzuk: ez**,**

11.2.- Ingurumen-arlokoak: ez**.**

11.3.- Etikoak: ez**.**

11.4.- Linguistikaren arlokoak: baldintza orokorren 28.1 klausulan zehaztutakoak.

11.5.- Beste batzuk: ez**.**

Halakorik egotekotan, kontratua gauzatzeko baldintza berezi guztiak azpikontratista guztiei eskatuko zaizkie.

12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN-, GIZARTE- EDO LAN-ARLOKO BESTE BETEBEHAR BATZUK

12.1.- Funtsezko kontratu-betebeharrak:

12.1.1.- Kontratuko klausula espezifikoen 11. klausulan adierazitako gauzatze-baldintza bereziak.

12.1.2.- Kontratua gauzatzeko adskribatzea, hala badagokio, **II-2. ERANSKINEAN («Baliabideak adskribatzeko konpromisoa»)** agertzen den erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako baliabideak, bai eta giza baliabideak eta/edo baliabide materialak ere, baldin eta adjudikazio-prozeduran kaudimen tekniko edo profesionalaren betekizunak betetzeko eduki direla edo erabilgarri daudela egiaztatu bada.

12.1.3.- Kontratistak berak prestazioaren zati jakin batzuk edo lan jakin batzuk egiteko betebeharra, kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 eta 18.3 klausulen arabera.

12.1.4.- Azpikontratazioa egin ahal izateko, kontratuko klausula espezifikoen 14.1 klausulan ezarritako baldintzak betetzea, azpikontratatzaileak baldintza orokorretako 35.1 klausulan xedatutakoak betetzeko gai dela egiaztatzea eta SPKLren 215.2 artikuluko c) atalean jasotzen diren larrialdi bati erantzuteko edo presako neurriak hartzeko beharra eragiten duten inguruabarrak daudela egiaztatzea.

12.1.5.- Prestazioa baldintza orokorren 29.3 klausulako a) letratik d) letrara bitartean aurreikusitakoaren arabera egiteko betebeharra.

12.1.6.- Prestazioa baldintza orokorren 30. klausulan ezarritakoa betez egiteko betebeharra.

12.1.7.- Beste batzuk: ez.

Edozein kontratu-betebehar ez betetzea **arau-hauste astuntzat** hartuko da SPKLren 71.2 c) artikuluan ezarritako ondoreetarako.

12.2.- Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko beste betebehar batzuk: ez.

12.2.1.- Ingurumen-arloko betebeharrak: ez.

12.2.2.- Lan- eta gizarte-arloko betebeharrak: bai, honako hauek:

12.2.2.1- Langileen soldata-baldintzak betetzea, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera, eta SPKLren 122.2. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. {0>

12.2.2.2- Beste batzuk: ez.

13.- ZEHAPENAK.

13.1.- Baldintza orokorren 32.1 klausulan aurreikusitakoez gain, zigor gehigarriak ezartzen dira: **ez.**

13.2.- Zehapen-zenbatekoak ezartzen dira, SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluak, epeak betetzen berandutzeagatik: ez.

14.- AZPIKONTRATAZIOA.

14.1.- Azpikontratatzeko aukerari mugak ezartzen zaizkio: bai, kontratuaren klausula espezifikoen 18.3 klausulan xedatutakoaren arabera, zeregin kritikoak direlako.

15.- GAUZATZE-MAILA EGIAZTATZEA, HARRERA ETA BERME-EPEA

15.1.- Prestazioa behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko modua: adjudikaziodunaren hileko txostena, kontratuaren xede diren lanak amaitzeari buruzkoa, eta SPRIn kontratuaren ardura duen pertsonaren egiaztapen-txostena, faktura(k) ordaindu aurretik.

15.2.- Jasotze-epea: ez dagokio.

15.3.- Berme-aldia: hiru (3) hilabete kontratua amaitzen denetik.

16.- KONTRATUA ALDATZEA.

Agirietan kontratua aldatzeko aukera dago aurreikusita (SPKLren 204. art.): ez.

17.- SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

Baldintza orokorren 39. klausulan aurreikusitakoez gain, kontratua bertan behera uzteko arrazoi gehigarriak ezartzen dira: ez.

18.- KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK.

18.1.- Kontratistak baldintza orokorren 25.2 klausulan xedatutako **lan-programa** aurkezteko betebeharra: ez.

18.2.- Baldintza orokorren 29.2.d) klausularen 2) apartatuan datu pertsonalak tratatzeko aipatzen diren neurri berezi gehigarriak ezartzen dira: Bai, apartatu horretan aurreikusitakoaren arabera, adjudikaziodunak dagokion tratamendu-azpieragilearen kontratua sinatu beharko du, entitate kontratatzailearen kontura, tratamendu-eragilea den aldetik, egin dezakeen datu pertsonalen balizko tratamenduari dagokionez. Tratamendu-azpieragilearen akordioaren eredua IV. Eranskinean erantsi da.

18.3- Prestazioaren zati batzuk edo lan jakin batzuk kontratistak berak egitea eskatzen da, SPKLren 75.4 artikuluan xedatutakoaren arabera: bai, kontratatu beharreko zerbitzuen izaera dela eta, adjudikaziodunak bere baliabideak erabiliz gauzatu beharko ditu lan guztiak, eta ezingo du zerbitzuaren zatirik azpikontratatu.

18.4- Beste batzuk: ez.

II.- ESLEITZEKO PROZEDURAREN EZAUGARRIAK.

19.- ORGANOAK ETA ERREGISTROAK

19.1.- Botere adjudikatzailea: SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia (aurrerantzean, SPRI).

19.2.- Organoak identifikatzea.

19.2.1.- Kontratazio-organoa: SPRIko zuzendari nagusia.
19.2.2.- Kontratuaren arduraduna: Cristina Oyón (Teknologia, Berrikuntza eta Jasangarritasun arloko zuzendaria)
19.2.3.- Kontratazio-zentrala. Kontratua adjudikatzen duen organoak beste erakunde baten izenean jarduten du: ez.
19.2.4.- Kontratazio-mahaiaren osaera:
Mahaiburua Cristina Oyón izango da, eta, gainera, 3 kide izango ditu: Oskar Alberdi jn. (idazkari nagusia); Koldo Pérez de Heredia jn. (Administrazioa, Finantzak eta Erosketak saileko teknikaria) eta Francisco Javier Apiñániz jn. (teknologia saileko zuzendaria). Kontratazio-mahaiaren idazkaria Oskar Alberdi izango da.

Beharrezkoa bada, honako ordezko hauek aurreikusi dira:

-. Cristina Oyón and. eta Amaia Martínez and.

- Oskar Alberdi jn. eta Maider Escubi and.

- Koldo Pérez de Heredia jn. eta Aitor Peñelori Allende jn.

- Javier Apiñániz jn. eta Maite Hernández and.

19.2.5.- Adituen Batzordea/organismo tekniko espezializatua: ez.

19.3.- Alderdi teknikoei buruzko kontsultak egiteko harremanetarako datuak:

- Helbide elektronikoa: japinaniz@spri.eus
- Telefono-zk.: 944037006

19.4.- Administrazioko gaiei buruzko kontsultak artatzeko harremanetarako datuak:

- Helbide elektronikoa: aatela@spri.eus
- Telefono-zk.: 944037002
- Lizitazio elektronikoa egitean gertatutako gorabeherak: **EAZ.** Telefono-zenbakia: 945 01 62 98

19.5.- Erregistroak:

19.5.1.- Eskaintzak aurkezteko erregistroa: Kontratazio Elektronikorako Erregistro Telematikoa (ikus baldintza orokorren 12.2.1 klausula).
19.5.2.- Ziurtagirien eta fakturen aurkezpen-erregistroa: SPRI, Urkixo zumarkalea 36, 4. Solairua, Bizkaia Plaza Eraikina, Bilbo, Bizkaia.

20.- IZAPIDEAK ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

20.1.- Kontratua araupetze harmonizatuaren menpe dago: ez.

20.2.- Izapidetzea: arrunta**.**

20.3.- Prozedura: irekia.

20.4.- Loteen banaketari buruzko informazioa: ez dagokio

20.5.- Izapidetzeko bitartekoak: elektronikoak**.**

20.6.- Enkante elektronikoa: ez**.**

20.7.- Gizarteratzeko enplegu-zentro berezietarako eta laneratzeko enpresetarako edo enplegu babestuko programen barruan daudenetarako gordetako kontratua: ez**.**

20.8.- Zenbait erakundetarako gordetako kontratua, gizarte-, kultura- edo osasun-izaerako zerbitzu-kontratua delako, SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera: ez**.**

21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BALIABIDEEN ATXIKIPENA

21.1.- Gutxieneko kaudimen-betekizun batzuk izateko betebeharra: bai, 21.2 klausularen arabera.

21.2.- Kaudimena: Eragile ekonomikoek honako kaudimen hau izan beharko dute

- **Ekonomikoa eta finantzarioa. Eskakizuna/k:**

  Lizitatzailearen negozioen urteko bolumena, eraketa-daten edo enpresaren jardueren hasiera-daten eta eskaintzen aurkezpen-egunaren arabera, azken hiru ekitaldi eskuragarrietako ekitaldi hoberena izango da, kontratuaren urteko balio zenbatetsia edo halako bat eta erdi izan behar du, hau da, 45.000 euro.

- **Teknikoa edo profesionala. Eskakizuna/k:**

  Lehiaketan parte hartzeko, ezinbestekoa izango azken hiru urteetan lehiaketaren xedearen berdinak edo antzekoak diren lanak egin izana, eta, horrez gain, mota horretako lan gehien egin ziren urteko zenbateko metatua gutxienez kontratuaren batez besteko urteko kuotaren % 70 izatea; hau da, gutxienez, 21.000 eurokoa.

  Operadore ekonomiko sortu berrien kasuan (bost (5) urtetik beherako antzinatasuna) honako kaudimen tekniko edo profesional hau izan beharko dute:

  Azken hiru urteetan, edo eratze-datatik aurrera, batez besteko langile-taldea 2 langilekoa duten enpresek soilik parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

Baldintza orokorren 11.4 klausulan xedatutakoa alde batera utzi gabe, kaudimen-betekizun horiek eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu beharko ditu, kontratuaren klausula espezifikoen 25.1 klausulan adierazitako dokumentuen bidez.

21.3.- Sailkapena: ez dagokio**.**

21.4.- Enpresa- edo lanbide-gaikuntza: ez**.**

21.5.- Pertsona juridikoek prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-prestakuntza jakinarazi beharko dituzte: ez**.**

21.6.- Baliabideak nahitaez adskribatzea: bai, II.2 ERANSKINEKO «baliabideak adskribatzeko konpromisoa» izeneko erantzukizunpeko adierazpenaren arabera.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu behar du baliabide horiek benetan erabilgarri daudela, kontratuaren klausula espezifikoen 25.2 klausulan adierazitako dokumentuen bidez.

22.- ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK.

22.1.- Adjudikatzeko irizpide bakarra dago: ez**.**
22.2.- Adjudikatzeko irizpide asko daude: bai**.**
22.2.1.- Balio-judizio baten arabera kuantifikatutako irizpideak:
Haztapena. Gehieneko puntuazioa: 49 puntu.

Eskaintzari emango zaion puntuazio teknikoa atal bakoitzean eskuratutako puntuazioen batura izango da, eta honela baloratuko da:

Haztapen-faktoreak

	Gehieneko puntuazioa	Bikaina	Ona	Ertaina	Oinarrizkoa	Ez da aurkeztu edo ez dagokio
		100%	75%	50%	25%	0%
Lantaldea	30					
Prestakuntza eta gaikuntza	10	10	7,5	5	2,5	0

Proposatutako lantaldeak antzeko proiektuetan duen esperientzia profesionala.	15	15	11,25	7,5	3,75	0
Proposatutako lantaldeko kideen arduraldi egokitua eta orekatua	5	5	3,75	2,5	1,25	0
Programa eta lan-metodologia	19					
Lan-metodologiaren egokitasun handiena.	10	10	7.5	5	2.5	0
Zerbitzuaren plangintza, planteamendua eta zerbitzu globalaren ikuspegia.	9	9	6,75	4,5	2,25	0

OHARRA: EDOZEIN IRIZPIDETAKO PUNTUAZIOA 0 BADA, ESKAINTZA BAZTERTU EGINGO DA LEHIAKETATIK.

- Irizpidea: Lantaldea
- Haztapena: 30 puntu
- Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

IRIZPIDEAK/AZPIRIZPIDEAK	Bikaina	Ona	Ertaina	Oinarrizkoa	Ez da aurkeztu edo ez dagokio
Lantaldea					
Prestakuntza eta gaikuntza	Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak oso prestakuntza eta gaikuntza egokia du, eta balio handia ematen dio zerbitzuari.	Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak prestakuntza eta gaikuntza egokia du, eta zerbitzuari kalitatea eskaintzen dio.	Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak nahikoa prestakuntza eta gaikuntza dauzka.	Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak oinarrizko prestakuntza, trebakuntza eta gaikuntza dauzka, baina ez dira nahikoak zerbitzuari balioa emateko.	Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak ez du ez prestakuntzarik ez gaikuntzarik.
Proposatutako lantaldeak antzeko proiektuetan duen esperientzia profesionala.	Lantaldeak esperientzia profesionala dauka lizitazioaren xede den antzeko proiektuetan, eta balio handia ematen dio zerbitzuari.	Lantaldeak esperientzia profesionala dauka lizitazioaren xede den antzeko proiektuetan, eta kalitatea ematen dio zerbitzuari.	Lantaldeak lanbide-esperientzia eskasa dauka lizitazioaren xede den antzeko proiektuetan.	Lantaldeak lanbide-esperientzia eskasa dauka lizitazioaren xede den antzeko proiektuetan.	Lantaldeak lanbide-esperientzia eskasa dauka lizitazioaren xede den antzeko proiektuetan.
Proposatutako lantaldeko kideen arduraldi egokitua eta orekatua	Proposatutako langileen arduraldiak (fase desberdinetarako) proportzionaltasun oso egokia dauka, eta balio handia ematen dio horiek gauzatzeari.	Proposatutako langileen arduraldiak (fase desberdinetarako) proportzionaltasun egokia dauka, eta kalitatea ematen dio horiek gauzatzeari.	Proposatutako langileen arduraldiak (fase desberdinetarako) proportzionaltasun eskasa dauka, eta, beraz, ezin da bermatu horiek beteko direnik.	Proposatutako langileen arduraldiak (fase desberdinetarako) oinarrizko proportzionaltasuna dauka, eta, beraz, ez da nahikoa horiek betetzeko.	Proposamenak ez du fase desberdinetan jardungo diren langileen proportzionaltasunik jasotzen.

- Irizpidea: Programa eta lan-metodologia
- Haztapena: 19 puntu
- Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

IRIZPIDEAK /AZPIRIZPIDEAK	Bikaina	Ona	Ertaina	Oinarrizkoa	Ez da aurkeztu edo ez dagokio
Programa eta lan-metodologia					
Lan-metodologiaren egokitasun handiena.	Proposatutako metodologiak agiriko eskakizunak jasotzen ditu, eta guztiak modu argi eta zehatzean garatzen ditu, eta konponbidear i balio handia ematen dio, proposamenak erantzun ezin hobea bermatzeko moduan.	Proposatutako metodologiak agiriko eskakizunak jasotzen ditu, eta guztiak modu argi eta zehatzean garatzen ditu, eta konponbideari kalitatea ematen dio, proposamenak erantzun ezin hobea bermatzeko moduan.	Proposatutako metodologiak agiriko eskakizunak jasotzen ditu; hala ere, gutxi garatuta daude, eta, horregatik, proposamenak zerbitzuaren beharrak beteko dituela dirudien arren, ezin da bermatu behar guztiak beteko direnik.	Proposatutako metodologiak modu soilean betetzen ditu baldintza teknikoen agiriko betekizunak, baina zerbitzuren funtsezko alderdiren bat garatu gabe dago.	Proposamenean ez dago konponbiderik edo proposatutako konponbideak ez ditu eskatutako betekizunak betetzen.
Zerbitzuaren plangintza, planteamendua eta zerbitzu globalaren ikuspegia.	Proposatutako zerbitzuaren programazioak agiriko eskakizunak jasotzen ditu, eta guztiak modu argi eta zehatzean garatzen ditu, eta konponbidear i balio handia ematen dio, proposamenak erantzun ezin hobea bermatzeko moduan.	Proposatutako zerbitzuaren programazioak agiriko eskakizunak jasotzen ditu, eta guztiak modu argi eta zehatzean garatzen ditu, eta konponbideari kalitatea ematen dio, proposamenak erantzun ezin hobea bermatzeko moduan.	Proposatutako programazioak agiriko eskakizunak jasotzen ditu; hala ere, gutxi garatuta daude, eta, horregatik, proposamenak zerbitzuaren beharrak beteko dituela dirudien arren, ezin da bermatu behar guztiak beteko direnik.	Proposatutako programazioak modu soilean betetzen ditu baldintza teknikoen agiriko betekizunak, baina zerbitzuren funtsezko alderdiren bat garatu gabe dago.	Zerbitzuaren programazioaren proposamenean ez dago konponbiderik edo proposatutako konponbideak ez ditu eskatutako betekizunak betetzen.

Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei dagozkien puntuetan, gutxienez, % 50 lortu beharko da, balorazio globalean onartuak izateko. Gutxieneko puntuazio-atalase hori lortzen ez duten proposamenak ez dira kontuan hartuko eta gainerako hautapen-prozesutik automatikoki kenduko dira.

Halaber, balorazio teknikoa gainditzeko, gutxienez, formulen bidez ebaluatu ezin diren irizpideetako bakoitzaren gehieneko balorazioaren % 50 lortu beharko da. Hau da, eskaintza teknikoa baztertu egingo da baldin eta "Lantaldea" edo "Lanaren programa eta metodologia" ataletako batek ez badu lortu % 50eko edo hortik gorako balorazioa.

OHARRA: EDOZEIN IRIZPIDETAKO PUNTUAZIOA 0 BADA, ESKAINTZA BAZTERTU EGINGO DA LEHIAKETATIK.

B gutun-azalean ezarritako datu objektiboak (formulen bidez ebaluatu daitezkeenak) jasotzen dituzten eskaintza teknikoak kanpoan geratuko dira eta ez dira eskaintza ekonomiko horiek irekiko.

22.2.2.- Formulak aplikatzearen bidez automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak:

- **Irizpidea:**

  Haztapena. **Gehieneko puntuazioa: 49 puntu.**
  Formula:

  Guztira 49 puntu eman daitezke, formula proportzionala aplikatzearen bidez,

  Formula: B = (Pb / P) x 49

  B: Balorazioa

  Pb: Onetsitako eskaintzetatik merkeena

  Eskainitako prezioa

- **Irizpidea: Prestakuntza**

  Haztapena: 2 puntu
  SPRIko langileei, eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzako langileei, doako prestakuntza ematea baloratuko da kontratuaren xedearekin lotutako gaiei buruz, honela:

  - 3 orduko iraupena duen 1 saio, gutxienez: 1 puntu
  - 3 orduko iraupena duen 2 saio, gutxienez: 2 puntu

22.3.- Eskaintza ohiz kanpo baxuak:

Hasiera batean, neurrigabe edo ausartegitzat jotzen dira kasu hauetan egindako eskaintzak:

1.- Lizitatzaile bakar batek aurkezten badu eskaintza, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 35 portzentaje-unitate txikiagoa denean.

2.- Bi lizitatzaile daudenean, beste eskaintza baino 30 portzentaje-unitate baino baxuagoa dena.

3.- Hiru lizitatzaile daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino 20 portzentaje-unitate baino baxuagoak direnak. Nolanahi ere, batezbestekoaren zenbaketa horretatik kanpo geratuko da zenbateko handiena duen eskaintza, baldin eta batezbestekoa baino 20 ehuneko-unitatetik gorakoa bada. Edonola ere, proportzioz kanpokotzat joko da lizitazioaren oinarrizko aurrekontuarekiko ehuneko 35 unitatetik gorako beherapena.

4.- Lau lizitatzaile edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino 20 portzentaje-unitate baino baxuagoak direnak. Dena den, haien artean batez bestekoa ehuneko 20 puntu baino gehiagoz gainditzen duen eskaintzarik izanez gero, beste batezbesteko bat kalkulatuko da kasu horretan ez dauden eskaintzekin. Nolanahi ere, gainerako eskaintza kopurua hiru baino txikiagoa bada, batezbesteko berria zenbateko txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatuko da.

23.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK:

ez da halakorik ezartzen.

24.- GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Prozeduran parte hartzeko exijitutako dokumentuak jarraian adierazitako artxibo elektroniko edo gutun-azalen barruan aurkeztuko dira.

24.1.- A GUTUN-AZALA: AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA

Gutun-azal honetan baldintza orokorren 13.1 klausulan adierazitako dokumentuan aurkeztu beharko dira.
EKABaren IV. atalari dagokionez, operadore ekonomikoak **α atala** bakarrik bete beharko du: bai.

24.2.- B GUTUN-AZALA: FORMULEN BIDEZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA.

Gutun-azal honetan honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Eskaintza ekonomikoa, **III.1 eranskineko** eredua erabilita.
- Eskaintza ekonomikoa, **III.2 eranskineko** eredua erabilita.

24.3.- C GUTUN-AZALA: EBALUATZEKO BALIO-IRITZIA ESKATZEN DUEN ESKAINTZA:

Gutun-azal honetan agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Dokumentuaren izena: Lantaldea

  Atxikitako irizpidea Lantaldea

  Dokumentuan sartu behar diren informazioa edo datuak:
  - Prestakuntza eta gaikuntza (CVak).
  - Proposatutako lantaldeak antzeko proiektuetan duen esperientzia profesionala.
  - Proposatutako lantaldeko kideen arduraldi egokitua eta orekatua.

- Dokumentuaren izena: Programa eta lan-metodologia

  Atxikitako irizpidea Programa eta lan-metodologia
  Dokumentuan sartu behar diren informazioa edo datuak:

  - Baldintza teknikoen agiriko eskakizunetan oinarrituta proposatutako metodologia.
  - Zerbitzuaren programazioa eta plangintza.

C GUTUN-AZAL HONETAN EZ DIRA INOLA ERE AIPATUKO EDO SARTUKO FORMULA BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN ALDERDIEI BURUZKO DATUAK EDO DOKUMENTUAK, HAU DA, PREZIOARI, ERANTZUTEKO EPEARI EDO ESKAINITAKO PRESTAKUNTZARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Baldintza Orokorren 14. klausulan ezarritakoa gogoratu behar da, gutun-azal bakoitzean sartu beharreko dokumentazioari dagokionez.

24.4.- aldaketak egon daitezke: ez**.**

25.- ESKAINTZA ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Gutun-azal horretan baldintza orokorren 21.1 klausulan adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko dira, bidezkoa bada:

25.1.- Kontratuaren klausula espezifikoetako 21.2 klausulan jasotako kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta kaudimen tekniko edo profesionaleko betebeharrak egiaztatzeko dokumentazioa. Bai, hauek:

- **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:**

  Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko, dokumentu hauen kopia bat aurkeztu beharko da: (a) Onartu eta Merkataritza Erregistroan utzitako urteko kontuak, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta egonez gero, edo, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean utzitakoak; eta (b) auditoretzaren txostena, bidezkoa bada.

  Merkataritzako Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualek urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako urteko inbentario eta kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute.

- **Kaudimen teknikoa edo profesionala:**

  Lehiaketaren xedeen antzeko zerbitzu nagusien zerrenda, azken hiru urteetakoak, horien zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko edo pribatua adieraziz. Lanak egiaztatzeko, organo eskudunak egindako edo ikus-onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, edo, hartzailea subjektu pribatua bada, hark egindako ziurtagiri bat aurkeztuko da. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, lizitatzailearen adierazpena aurkeztuko da, zerbitzuaren prestazioa gauzatu izana egiaztatzen duten lizitatzailearen dokumentuekin batera.
  Operadorea berria baldin bada (5 urte baino gutxiago baditu): azken hiru urteotako urteko batez besteko plantillari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, edo bestela, eratu zenetik igarotako epekoa. Horrekin

batera, kontratazio-organoak eskatutako egiaztagiriak ere aurkeztu beharko ditu, halakorik errekeritzekotan.

25.2.- Kontratuko klausula espezifikoetako 21.6 klausulan eskatzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak benetan eskuragarri dituela egiaztatzera bideratutako agiriak: erantzukizunpeko adierazpena, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak eskuragarri dituela egiaztatzeko.

26.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

26.1.- Agiriei eta dokumentu osagarriei buruzko informazio gehigarria:

26.1.1.- Eskaera egiteko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken eguna baino 4 egun lehenago.

26.1.2.- Lortzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino 2 egun lehenago.

26.1.3.- Agiriei edo gainerako dokumentazioari buruzko azalpenen izaera loteslea: ez**.**

26.2.- Konpentsazio-modu espezifiko bat aurreikusten da kontratua ez adjudikatzeko edo egiteko erabakitzen den eta adjudikatzailearen ahalaz prozedurari uko egiten zaion kasuetarako: bai, 150 euro.

26.3.- SPKLren 158.2 artikuluan kontratua adjudikatzeko ezarritako gehieneko epea ez den gehieneko epea: Ez.

26.4.- Kontratua formalizatu aurretik aurkeztu beharreko bestelako dokumenturik: ez

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK.

27.- KONTRATUA LAGATZEA

Kontratua lagatzeko beste kasu batzuk aurreikusten dira, baldintza orokorren 36.1.1 klausulan aurreikusitakoez gain: ez.

BALDINTZA OROKORRAK

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA GAI OROKORRAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea kontratuaren klausula espezifikoen 1. klausulan adierazitakoa eta baldintza teknikoen pleguan definitutakoa izango da.

Kontratuaren xedea lotetan zatituta baldin badago, lote bakoitzaren xedea kontratuaren klausula espezifikoen 1.2.2 klausulan adierazitakoa eta baldintza teknikoen pleguan definitutakoa izango da.

Prestazioaren CPVa eta prestazioari dagokion zerbitzuen kategoria, kontratuaren klausula espezifikoen 1.3 eta 1.4. klausuletan daude adierazita.

Segidako traktuko kontratua baldin bada eta xedea osatzen duten prestazioaren unitateen kopurua ez bada zehatz definitzen, kontratistak exekutatu beharreko prestazioaren unitateak botere esleitzaileak eskatutakoak izango dira.

2.- KONTRATU IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK.

Dokumentu hauek kontratuzkoak dira:

a) Administrazio-klausula partikularren plegua (AKPP).

b) Preskripzio teknikoen plegua (PTP).

c) Kontratua formalizatzeko dokumentua, bai eta tratamendua agintzeko akordioari buruzko eranskina ere, kontratuaren berariazko klausulen 18.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

d) Eskaintza.

e) Lan-programa, kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 klausulan hala zehazten denean.

3.- KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA.

3.1.- Kontratuak **izaera administratiboa** du eta jarraian adierazitako arau eta dokumentuek arautzen dute.

3.2.- Kontratuzko dokumentuetan aurreikusita ez dagoen kasuetarako, lege hauek arautuko dute:

a) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legea (SPKL).

b) Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra (APKLAO), SPKLn aurreikusitakoari aurka egiten ez badio.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazioaren erregimenari buruzko 2016ko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua, SPKLn aurreikusitakoari aurka egiten ez badio.

d) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzeko 2009ko maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua.

e) Ogasuneko eta Administrazio Publikoko Kontseilariaren 2004ko abuztuaren 16ko agindua, Administrazio Publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozedura eta jarduketa batzuen tramitazio telematikoari buruzkoa.

f) Kontratazioa arautzen duten estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko beste edozein xedapen aplikagarri.

Horrez gain, Zuzenbide Administratiboaren gainerako arauak aplikatuko dira eta, hala badagokio, Zuzenbide Pribatuaren arauak.

3.3.- Aldeek kontratuzko dokumentuetan berariaz adierazitakoa bete beharko dute.
Dokumentu horietan ezarritakoa ez ezagutzeak ez du salbuetsiko kontratista bere betebeharra betetzetik eta eskaintza aurkeztuz gero lizitatzaileak klausula guztiak onartuko ditu inolako baldintzarik edo salbuespenik gabe.

4.- GAI HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, enpleguaren babesa, lan baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratze eta laneratzea, desgaitasunen bat duen pertsona kopuru edo portzentaje espezifiko bat kontratatzeko betebeharra eta DATUEN BABESA.

Hurrengo organismoetan indarrean dauden betebeharrei eta xedapenei buruzko informazioa lor daiteke, honi dagokionez:

4.1.- Gizonen eta emakumeen berdintasuna: EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea organismo autonomoa.

4.2.- Fiskalitatea: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Ogasunak, Nafarroako Foru Erkidegokoa eta Zerga Administrazioko Espainiako Agentzia.

4.3.- Ingurumenaren babesa: IHOBE sozietate publikoa.

4.4.- Enpleguaren babesa, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza eta OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

4.5.- Desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta lan-munduratzea eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko espezifiko bat kontratatzeko betebeharra: LANBIDE erakunde autonomoa.

4.6.- Datuen babesa: Datuen Babeserako Euskal Agintaritza

5.- LIZITAZIOAREN AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIAZKO TRAMITAZIOA ETA AURREIKUSITAKO BALIOA.

5.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kontratuaren klausula espezifikoen 3.1 klausulan ageri dena da eta, hala badagokio, klausula horretan zehaztutako urterokoetan eta loteetan dago banatuta.

5.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 3.2 klausulan adierazitako kontabilitate-errubrikan dago kontratutik eratorritako betebeharrei erantzuteko beharrezkoa den **kreditua**.

5.3.- Espedientea aldez **aurretik tramitatzekoa** baldin bada kontratuaren klausula espezifikoen 3.3 klausularen arabera, kontratuaren esleipena baldintzatuko du dagokion ekitaldi ekonomikoan kreditu egokia eta nahikoa izateak.

5.4.- **Estimatutako balioa** kontratuaren klausula espezifikoen 4. klausulan ageri dena da.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA.

6.1.- Prezioa zehazteko sistema orohorrarekoa duen kontratua: prezioa oroharreko sistemaren bidez zehazten den kontratuetan, kontratuaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da eta ezingo du inola ere gainditu kontratuaren klausula espezifikoen 3.1 klausulan ageri den lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe).

6.2.- Prezioa zehazteko unitate-prezioa erabiltzen duen kontratua: prezioa prestazioaren osagarriei, exekuzio-unitateei edo prestazio edo denbora-unitateei dagokien unitate-prezioen bidez zehazten den kontratuetan; horiek ezin izango dituzte inolaz ere gainditu kontratuko klausula espezifikoen 3.1 klausulan azaltzen diren gehienezko aurrekontuak (BEZik gabe):

a) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehatz definitzen denean: esleipendunak eskainitako unitate-prezioa eta unitateen kopurua biderkatzearen emaitza izango da prezioa.

b) Helburua osatzen duten unitateen kopurua ez bada zehatza:

1) Unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da.

2) Guztizko balio zenbatetsia izango da kontratuaren esparruan gehienez egin daitekeen gastua.

Kasu honetan, aurrekontu honen gastu efektiboa botere adjudikatzailearen benetako beharrek baldintzatzen dute, eta botere hori ez dago behartuta unitate kopuru jakin bat eskatzera, ezta osorik gastatzera ere.

6.3.- Prezioa zehazteko bi sistemak erabiltzen badira (oroharrekoa eta unitate-prezioak) prestazioaren hainbat zatitarako, kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan eta baldintza orokorren 6.1 eta 6.2 klausuletan xedatutakoa beteko da.

6.4.- Kontratuaren prezioa esleipenaren ebazpenean zehaztuko da, eta BEZa aparteko partida gisa adieraziko da, bai eta, hala badagokio, urte anitzeko banaketa ere.

6.5.- Kontratuaren prezioaren barruan sartzen dira aplikagarriak diren zerga, tasa eta kanon guztiak, baita kontratuzko baldintzak betetzetik eratorritako edozein gastu ere.

7.-PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Prezioak kontratuaren klausula espezifikoen 5.4 klausulan hala adierazita dagoenean soilik berrikusiko dira, klausula horretan ageri den formula aplikatuz.

8.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA EDO KONTRATUAREN IRAUPENA. LUZAPENA.

8.1. Traktu bakarreko kontratuak:

Hau da kontratua gauzatzeko epea:

a) Eskaintzek ezin badute epe osoa eta/edo epe partzialak murriztu: kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 klausulan adierazitakoa.

b) Eskaintzek epe osoa eta/edo epe partzialak murriztu baldin baditzakete: adjudikatzaileak eskainitakoak.

Epe horiek SPKLren 195.2 artikuluan xedatutakoaren arabera soilik luzatu ahal izango dira.

8.2. Segidako traktuko kontratuak:

Kontratuaren iraupena eta, hala badagokio, epe partzialak kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 eta 6.3 klausuletan adierazitakoak dira, hurrenez hurren.

8.3.- Segidako traktuko kontratuak luzatzea

Kontratuaren klausula espezifikoen 6.4 klausulan hala xedatzen denean, kontratazio-organoak kontratua luzatzea adostu ahal izango du eta derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat, SPKLren 198.6 artikuluan jasotako ebazpenaren kausaren kasuan izan ezik. Kontratuaren luzapena derrigorrezkoa izan dadin kontratistarentzat, kontratuaren arduradunak kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago abisatu beharko dio gutxienez.

9.- BERMEAK.

9.1.- Behin-behineko bermea SPKLren 108.1. artikuluan ezarritako formularen batean eskaini daiteke eta SPKLren 106.3 artikuluak adierazitako moduetan gorde beharko da.

Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da eta lizitatzaileei berehala itzuliko zaie kontratua perfekzionatu ostean. Hautatutako lizitatzailearen kasuan, behin betiko bermea lortzean itzuliko zaio behin-behineko bermea, SPKLren 106.4 artikuluan eta baldintza orokorren 23.4 klausulan xedatutakoaren arabera.

9.2.- Behin betiko bermea eta osagarria aurreko atalean aurreikusitako formulen bitartez eman ahal izango dira eta prezioa atxikiz kontratuaren klausula espezifikoen 8.4 klausulan baimenduta baldin badago.

9.3.- Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan (aurrerantzean, ABEE), behin-behineko eta behin betiko bermeak ABEEko kide batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte, betiere, eskatzen den kopuru osora heltzen badira elkarrekin eta kide guztiak batera eta modu solidarioan bermatzen badira.

10.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK.

10.1.- Kontratatzailearen profilera esteka honen bidez sar daiteke: http://www.contratacion.euskadi.eus edo Kontratatzailearen Profilean: lizitazioak eta kontratuak - Spri Taldea

10.2.- Interesdunek **dokumentu osagarrien edo informazio gehigarriaren kontsultak eta eskaerak** formula ditzakete, kontratuaren klausula espezifikoen 19.3 eta 19.4 klausuletan ageri diren helbide elektronikoen bidez. Idatziz egingo dira kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.1 klausulan adierazitako informazio-eskatzeko epemugara arte eta kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.2 klausulan adierazitako epemugara arte (egun hori barne) erantzun beharko dira.

II.- LIZITAZIOA.

11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

11.1.- Kontratazio-prozeduran parte hartu ahal izango dute jarduteko erabateko gaitasuna duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta kaudimen-baldintzak betetzen dituzten, edo, hala badagokio, sailkapena duten Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek; eta hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan ezartzen diren gaitasunak dituztenek (klausula horretan ezarri baldin bada gaitasun horiek izateko unea “eskaintzak aurkezteko amaierako data” dela).

Halaber, ABEEtan elkartuta dauden eta aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsonek ere parte har dezakete, legez aurreikusita dauden baldintzen arabera.

SPKLren 66.1. artikuluan xedatutakoa betetzen duten pertsona juridikoek eta operadore ekonomiko komunitarioek edo Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatzen duten estatuek eta komunitarioak ez diren, baina SPKLren 67 eta 68.1 artikuluetan xedatutakoa hurrenez hurren betetzen duten operadore ekonomikoek soilik har dezakete parte.

11.2.- Pertsona bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, kontratuaren klausula espezifikoen 24.4 klausulan aldaerak onartu ezean. Halaber, ezingo da ABEE modura proposamenik sinatu beste batzuekin dagoeneko banaka sinatu baldin bada, ezta ABEE batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek betetzen ez badira, ez dira onartutako horiek sinatutako proposamen guztiak.

ABEE batean elkartuta lehiatzen diren enpresen arteko kolusio-zantzuak hautematen direnean, mahaiak edo kontratazio-organoak, SPKLren 69. artikuluaren arabera, elkartuta aurkezteko arrazoiak berariaz eta arrazoituta justifikatzeko eskatuko die enpresa horiei. Lehiaren Euskal Agintaritzari (aurrerantzean, AVC/LEA) jakinarazi beharko zaizkio, enpresek egindako justifikazioa kontuan hartuta, kolusio-zantzu oinarridunak dauden kasuak.

11.3.- Kontratuaren klausula espezifikoetako 20.7 eta 20.8 klausulek kontratua gizarteratzeko Enplegu Zentro Berezientzat eta gizarteratze-enpresentzat erreserbatzen badute hurrenez hurren, edo babestutako enpleguaren programen esparruaren barruan baldin badago SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, edo erakunde jakin batzuen barruan baldin badago SPKLren 48. xedapen gehigarriaren arabera, legez ezarritako baldintzak betetzen dituztenek soilik hartu ahal izango dute parte (desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina, 2013ko azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretuaren bitartez onartua; gizarteratze-enpresen erregimena arautzeko 2007ko abenduaren 13ko 44/2007 Legea; eta SPKLren 48. Xedapen gehigarria).

11.4.- Kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari, gaikuntza enpresarialari edo profesionalari (hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan eskatzen dena, klausula horretan adierazi ezean “kontratua sinatu aurretik” izan behar dela) eta kontratatzeko debekuari lotutako baldintzak eskaintzak aurkezteko epearen amaieran bete beharko dira eta kontratua perfekzionatzeko unera arte iraun beharko dute.

Kontratazio-mahaiak prozeduraren edozein unetan eska dakizkieke lizitatzaileei ziurtagiri guztiak edo batzuk, eta dokumentu justifikatzaileak aurkezteko, kontratua esleitu aurretik garapen ona bermatzeko beharrezkoa baldin bada. Era berean, aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko kontuak argitzeko eskatu ahalko die, edo beste batzuk aurkezteko ere bai.

11.5.- Eskaintza aurkeztean, lizitatzaileak plegu honetako klausulak eta gainerako kontratuzko dokumentuak onartzen ditu inolako baldintzarik eta salbuespenik gabe, eta, halaber, baimena ematen dio kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan eta Sailkatutako Enpresetan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen Erregistro Ofizialean eta Sailkatutako Enpresetan edo Europar Batasuneko estatu kide baten datu-base nazionalean edo operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko esleipen-prozeduraren edozein unetan, betiere azken kasu horretan doakoa bada datuak eskuratzea. Operadore ekonomikoek ez dute betebeharrik izango erregistro, zerrenda eta datu-base horietan daude datuak egiaztatzeko dokumentuak aurkezteko.

12.- ESKAINTZAK AURKEZTEA.

12.1.- Hizkuntza.

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita edo ofizialki itzulita aurkeztu beharko da.

12.2.- Bitartekoak.

12.2.1.- Bitarteko elektronikoak

Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulan adierazi ezean prozedura tramitatzeko baliabideak ez direla elektronikoak, eskaintzak baliabide elektronikoen bidez aurkeztuko dira, KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN plataforman dagoen LIZITAZIO ELEKTRONIKOAREN SISTEMA izeneko aplikazioaren bidez.

12.2.1.1.- Erabiltzeko eskakizunak hauek dira:

1. Administrazio-eskakizunak:

   a) Ziurtagiri digital bat edukitzea, EAEko administrazioak izapide elektronikoetarako baimendutakoa. Gaur egun, ziurtagiri elektronikoak hauek dira:

   - Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
   - FNMT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
   - Dni- e.
   - Camerfirma (entitateak, herritarrak) (oso jende gutxi sartu da aplikaziora ziurtagiri hauekin).

   b) Egoera hauetako batean egotea:

   a. Euskadiko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistroan alta emanda egotea eta ziurtagiria indarrean edukitzea.

b. Aldi baterako gaikuntza-sisteman alta emanda egotea.

c. Bi operadore ekonomikok edo gehiagok batera parte hartzen badute eta, esleipendun suertatuz gero, ABEE bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen badute, konpromiso hori aldi baterako gaikuntza-sisteman erregistratuta egon beharko da.

2. Baldintza teknikoak:

Baldintza teknikoei buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:

3. https://www.contratacion.euskadi.eus/acceso-a-la-licitacion-electronica-en-la-plataforma-kontratazioa-empresas/webkpe00-kpelicel/es/ Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzei edo jazoerei erantzuteko laguntza-zerbitzua: **945016298**.

12.2.1.2.- Aurkezteko modua:

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan adierazitako dokumentuak erantsi behar dira, klausula horrekin bat etorriz aplikazioan agertzen diren gutun-azaletan.

b) Dokumentuak irakurri eta izapidetuko direla bermatzen da luzapen hauek baldin badituzte soilik: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z.

c) Birusak egoteak sistemaren eraginkortasunean sortu ditzakeen gorabeherak ahalik eta gutxien izan daitezen, dokumentuak formatu hauetan bidaltzea gomendatzen da: .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff.

d) Eskaintza aurkezteko epearen barruan jaso dela aintzat hartuko da trantsizioa epearen barruan ematen bada eta arrakastaz amaitzen bada.

12.3.- Konfidentzialtasuna.

Emandako dokumenturen bat konfidentzialtzat duten lizitatzaileen kasuan, esleipen esplizitua egin beharko dute —**II.3 ERANSKINA** betez— eta argi adierazi beharko dute konfidentziala den dokumentuan bertan, gainean inprimatuta edo orriaren ertzean. Esleipena ez bada hala egiten, dokumentua ez da konfidentzialtzat hartuko.

II.3 ERANSKIN horretan, isilpeko teknikoekin edo komertzialekin lotuta egoteagatik konfidentzialak diren informazioak eta eskaintzaren alderdiak adierazteaz gain, lotura hori justifikatzen duten **arrazoi zehatzak azaldu beharko dira**.

Eskaintza ekonomikoa ez da inolaz ere konfidentziala izango. Eskaintza ekonomikoa konfidentziala dela ezarriz gero, egin ez dela ondorioztatuko da.

Konfidentzialtasun-adierazpena ezingo da lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazio guztira zabaldu, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzen duen dokumentazio guztira ere. Kasu honetan, edo adierazpen hori ez bada behar bezala dimentsionatzen, kontratazio-organoak zehaztuko du zer datu eta/edo dokumentuk merezi duten izendapen hori. Era berean jardungo du kontratazio-organoak, baldin eta deklarazioak ez badu arrazoi egokirik eta arrazoiturik lizitatzaileak konfidentzialtzat hartzeko hala deklaratutako informazioa.

Lizitatzaileak ez badu berariaz datu eta/edo dokumenturik konfidentzialtzat izendatu, aintzat hatuko da emandako datu eta/edo dokumentu horietako bat bera ere ez dela konfidentziala, baina, hala ere, kontratazio-organoak konfidentzialtzat har dezake hala izendatuta ez dagoen informazioren bat, enpresaren interes legitimoak bermatze aldera.

Halaber, eskaintzak aurkeztu ondoren, ezingo dira konfidentzialtzat hartu aurkezteko unean konfidentzial gisa hartu ez diren datuak.

Esleipen-prozeduran zehar hasierako eskaintzaren parte ez zen dokumentazioa eransten bada, dokumentazio berri hori osatzen duten datuak edo dokumentuak konfidentzialtzat hartu ahal izango dira, klausula honetako aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzetan.

12.4.- Dokumentazioa egiaztatzea.

Botere esleipendunak esleipen-prozesuan zehar eta kontratua esleitu eta formalizatu ondoren egiaztatu dezake emandako dokumentuen egiazkotasuna. Datuak faltsuak badira, kontratua baliogabetu daiteke. Arrazoi horregatik kontratua baliogabetuz gero, operadore ekonomikoari egotziko zaio ez betetze hori eta kalte-ordainak indemnizatu beharko dizkio botere adjudikatzaileari.

12.5.- Jakinarazpenak eta komunikazioak.

12.5.1.- Jakinarazi eta komunikatu beharreko jarduketak.

12.5.1.1.- SPKLren 44.2 artikuluaren b) hizkian definitutako tramitearen ekintzak eta esleipen-hitzarmena jakinarazi egingo dira.

12.5.1.2.- Komunikaziotzat hartuko dira argitzeko eskaerak, akatsak edo omisioak zuzentzeko eskakizunak, plegu honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko eskakizunak eta SPKLren 44.2 b) artikuluaren barruan ez dauden beste izapidetze-ekintza batzuk.

Jakinarazpenak eta komunikazioak lizitazio elektronikoaren sistemaren bidez egingo dira.

12.5.2 Eskaintzak baliabide elektroniko bidez aurkeztea.

Jakinarazpenak lizitazio elektronikoaren sistemaren bidez aurkeztuko dira.

13.- A gutun-azala «AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK».

13.1. Gutun-azal honetan jaso behar diren dokumentuen zerrenda.

13.1.1.- Operadore ekonomikoaren Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) behar bezala beteta. https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeperfi/es/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso30642/es_doc/adjuntos/deuc1.pdf helbidearen eta kontratatzailearen profilean argitaratutako xml artxiboaren bidez bete beharko da. **II.1 ERANSKINA**

Halaber, baldintza orokorren 13.3 klausulan jasotako balizko kasuetarako beharrezkoak diren EKABak aurkeztuko dira.

13.1.2.- Behin-behineko bermea, kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulak hala eskatzen badu.

13.1.3.- Bitartekoak atxikitzeko konpromisoa, **II.2 ERANSKINEAN** ageri den ereduaren arabera.

13.1.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.5 klausulan hala eskatzen bada, prestazioa exekutatzeko ardura duten langileen izenak eta kualifikazio profesionala.

13.1.5.- Operadore ekonomikoak emandako informazioak konfidentzial gisa izendatzea, **II.3 ERANSKINEAN** ageri den ereduaren arabera.

13.1.6.- **II.4 ERANSKINEAN** ageri den ABEE gisa eratzeko konpromisoa, egoki denean..

13.1.7.- Operadore ekonomikoak kontratuaren xede-lanak egiten dituzten langileen gainean hartzen dituen konpromisoei buruzko adierazpena, **II.5 ERANSKINEAN** ageri den ereduaren arabera.

13.1.8.- Enpresa-talde bereko hainbat operadore ekonomikok aurkezten badute eskaintza, **II.6 ERANSKINA** bete beharko da, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluaren arabera.

13.1.9.- Kontratuaren klausula espezifikoen 1.2 klausularekin bat datozen loteak baldin badaude, **II.7. ERANSKINA** beteko da, eskaintza zer lotetara aurkezten den adierazteko.

13.1.10.- Operadore ekonomiko komunitarioak badira edo Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten estatuak badira eta kontratua Espainian exekutatuko bada, kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen jazoera guztientzat Espainiako epaitegi eta auzitegi guztien jurisdikzioaren mende geratzen dela dioen adierazpena erantsi beharko du, eta, hala badagokio, uko egin beharko dio operadore ekonomikoari dagokion atzerriko foru jurisdikzionalari.

13.1.11.- Hainbat operadore ekonomiko ez komunitario baldin badira, SPKLren 68.1 artikuluan araututako txostena aurkeztu beharko dute. Halaber, kontratua Espainian exekutatuko bada, kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen jazoera guztientzat Espainiako epaitegi eta auzitegi guztien jurisdikzioaren mende geratzen dela dioen adierazpena erantsi beharko du, eta, hala badagokio, uko egin beharko dio operadore ekonomikoari dagokion atzerriko foru jurisdikzionalari.

13.2.- Kaudimen metaketa aldi baterako enpresa elkarteen kasuan.

ABEEren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala zehazte aldera, operadore ekonomiko bakoitzaren ezaugarriak bilduko dira.

Kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausularen arabera, klausula horretan adierazitako kaudimena 21.3 klausulan adierazitako sailkapenarekin ordezkatu baldin badaiteke, eta ABEEren barruan dauden operadore ekonomiko guztiek sailkapena baldin badute, sailkapen indibidualak zerbitzuen kontratista gisa pilatuko dira, kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako sailkapen orokorrera iritsi ahal izateko.

Hala ere, operadore ekonomiko guztiek ez badute sailkapenik, ABEEk eskatutako kaudimen-baldintza guztiak betetzen dituela aintzat hartuko da, kide bakoitzaren ezaugarriak bildu ondoren, elkarteak baldintza hauetakoren bat betetzen badu:

- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan adierazitako kaudimen-eskakizunak.
- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako Taldea, Azpitaldea eta Kategoria.

13.3- Arau bereziak Europako Kontratazio Agiri Bakarrari dagokionez (EKAB)

13.3.1.- Kontratua <u>lotetan</u> banatuta baldin badago eta hautaketa-irizpideak lote batetik bestera aldatu egiten badira, hau da, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak, EKAB bat aurkeztu beharko da lote bakoitzeko. Hala ere, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak berdinak badira lote guztientzat eta aldatzen den bakarra baldintzak baldin badira, operadore ekonomikoak eskaintza zenbat lotetara aurkeztu duen kontuan hartuta, EKAB bakarra beteko da guztientzat.

13.3.2.- <u>Azpikontratistak:</u>

13.3.2.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulako a) hizkian hala adierazten bada, operadore ekonomikoek EKABren II. zatiaren D atala bete beharko dute, eta datu hauek adierazi:

- Azpikontratatu nahi dituzten **kontratuaren zatiak**,
- Azpikontratatu nahi duten zati horren edo zati bakoitzaren **ehunekoa**
- Eta **azpikontratatzailearen edo azpikontratatzaileen izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoko baldintzei begira definiturik.**

13.3.2.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausularen b) hizkian hala adieraziz gero, operadore ekonomikoek azpikontratatu beharreko pertsonaren EKAB erantsi beharko dute (II. eta III. zatiko A eta B atalak behar bezala beteta), edo, hainbat pertsona azpikontratatuko badira, EKAB bana azpikontratatu beharreko pertsona bakoitzeko, behar bezala sinatuta.

13.3.3.- <u>Kaudimena kanpoko bitartekoekin integratzea:</u> operadore ekonomikoak beste operadore edo pertsona batzuen kaudimena eta bitartekoak erabiltzen baditu, bere EKAB propioa eta kaudimena eta/edo bitartekoak utzi dizkion pertsona edo operadore bakoitzaren EKABa aurkeztu beharko ditu (pertsona edo operadore bakoitzeko EKAB bat), behar bezala sinatuta eta II. eta III. zatietako A eta B atalak behar bezala beteta. Hala badagokio, baita IV. zatia ere.

13.3.4.- <u>ABEE</u>: hainbat operadore ekonomikok ABEE batean parte hartu nahi badute, aparteko EKAB bat aurkeztu beharko da eta bertan adierazi beharko da operadore ekonomiko parte-hartzaile bakoitzaren II. ataletik IV. atalera bitarteko informazioa.

13.3.5.- <u>Sailkapena</u>: kaudimena kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako sailkapenarekin ordezkatu nahi bada, EKABren II. zatiaren A ataleko taldeak, azpitaldeak eta kategoriak adierazi beharko dira.

13.3.6.- <u>Alde batera uzteko arrazoiak:</u> III. zatiko D atalean xedatutakoari dagokionez, alde batera uzteko arrazoi nazionalak hauek dira (SPKLren 71.1 artikuluko d hizkia):

- Lanpostuen % 2ko kuota desgaitasuna duten pertsonentzako gordetzeko betebeharra ez betetzea, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorreko Testu Bateginaren 42. artikulua.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz berdintasun-plana izateko betebeharra ez betetzea.

III.-GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA.

14.- ESKAINTZAK BAZTERTZEKO ARRAZOIAK ETA ARGIBIDE ESKAERAK.

14.1.- Kontratazio mahaiak, arrazoitutako balorazioa egin ostean, eskaintza hauek baztertuko ditu:

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan adierazita ez dagoen gutun-azal batean dokumenturen bat sartzen dutenak eta, hala, eskaintzaren isilpekoa arriskuan jartzen dutenak.

b) Edukia behar bezala ulertzea eragozten duten kontraesanak, omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.

c)Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.

d) Gehiengoa ezartzen duten unitate-prezioak edo lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen dutenak.

e)Plegu honen barruan dagoen eskaintza ekonomikoaren eredua nabarmen aldatzen dutenak.

f) Zenbatekoan akatsa dutenak.

g) Bideraezin bihurtzen duten akatsa edo funsgabetasuna dutenak, lizitatzaileak hala aitortzen badu.

h) AKPPn edo PTPPn ezarritako baldintzak edo eskakizunak betetzen ez dituztenak.

i) Irakurtzea edo edukira sartzea eragozten duen birusa dutenak.

14.2.- Kontratazio-mahaiak esleipenaren proposamena formulatu aurretik edozein unetan jaso ahal izango ditu eskaintzak ulertzeko beharrezkoak diren **azalpenak**. Ez da inolaz ere onartuko azalpenak aurkeztuz lizitatzaileek eskaintzan adierazitako terminoak aldatzea.

15.- AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN DOKUMENTUAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA.

15.1.- Eskaintzak aurkezteko epea amaitzean, kontratazio-mahaia A gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak denboran eta forman sailkatzeko bilduko da.

Aztertutako dokumentazioa zuzena dela eta baldintzak betetzeko nahikoa dela ondorioztatuz gero, lizitatzaile guztiak onartuko ditu prozeduraren barruan.

Aztertutako dokumentuetan zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak hautematen baditu, horiek aurkeztu edo omititu dituzten lizitatzaileei hiru (3) egun balioduneko epea emango die hautemandako akatsak edo omisioa zuzentzeko beharrezkoa den dokumentazioa entregatzeko.

Emandako epea igarotakoan, kontratazio-mahaiak zuzenketa-fase horretan entregatutako dokumentazioa aztertuko du eta lizitatzaileak onartzea edo alde batera uztea adostuko du. Lizitatzaileren bat alde batera uztea erabakitzen badu, alde batera uzteko arrazoiak gehituko ditu akordioan.

15.2.- Onartutako eta alde batera utzitako lizitatzaileen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta, azken kasu horretan, alde batera uzteko arrazoiak adieraziko dira.

16.- JUDIZIO BALIOA APLIKATZEA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEN BITARTEZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA.

16.1.- Irekitze publikoa.

Kontratazio-mahaiak lizitatzaileak onartu edo alde batera utzi dituen jakinaraziko du saio publiko batean, eta, jarraian, onartutako lizitatzaileek aurkeztutako C gutun-azalak zabalduko ditu.

16.2.- Kasu orokorra: kontratazio-mahaiak ebaluatzea.

Kontratazio-mahaiak dokumentazioa kontratuaren sail sustatzaileari bidaltzea adostu dezake, eskaintzak PTPPn ezarritako zehaztapenen aurkakoak ez direla egiaztatzeko, baloratzeko eta dagokion txostena egiteko.

Ebaluatzean sailak egiaztatzen badu eskaintzaren bat pleguen aurkakoa dela edo beste gutun-azal baten barruan entregatu beharreko dokumentuak edo datuak dituela, txostenean adieraziko du. Formulatu ondoren, kontratazio-mahaiari bidaliko dio, eskaintza osatzen duten dokumentuekin batera.

16.3.- Salbuespen-kasua: aditu-batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak ebaluatzea.

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.5 klausulak adituen batzorde bat edo eskaintzaren zati hori ebaluatzeko organismo tekniko espezializatu bat finkatzen badu, kontratazio-mahaiak esleitutako organoari igorriko dio dokumentazioa, ebaluatzeko eta txostena igortzeko. Formulatu ondoren, kontratazio-mahaiari bidaliko dio, eskaintza osatzen duten dokumentuekin batera.

17.- FORMULA BITARTEZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA.

17.1.- IREKI AURREKO JARDUKETAK.

17.1.1.- Balio-judizioa egitea eskatzen duten irizpideak erabiltzen dira.

Baldintza orokorren 16.2 klausulan aurreikusitako kasu orokorrean, B gutun-azalak zabaldu aurretik, kontratazio-mahaiak jarduketa hauek egingo ditu:

Saioaren zati publikoa hasi aurretik:

- Kontratuaren sail sustatzaileak igorritako balorazio-txostena aztertuko du eta eskaintzen puntuazioak baloratu eta esleituko ditu.
- Baldintza orokorrei buruzko 14.1 klausulan aurreikusitako kasuetan, eskaintzak alde batera uztea adostuko du.

Saioaren zati publikoa hastean:

- Saioko parte-hartzaileei jakinaraziko die eskaintza bakoitzari zer puntuazio eman dion eta, hala badagokio, alde batera utzitako eskaintzen eta horretarako arrazoien berri emango du.

Baldintza orokorren 16.3 klausulan aurreikusitako ezohiko kasuan, gutun-azalak zabaldu aurretik, adituen batzordeak edo espezializatutako organismo teknikoak emandako puntuazioak jakinaraziko ditu kontratazio-mahaiak eta, hala badagokio, alde batera utzitako eskaintzak eta aldera batera uzteko arrazoiak komunikatuko ditu.

17.1.2.- Ez da erabiltzen balio-judizioa egitea eskatzen duen irizpiderik.

Zabaldu aurretik, kontratazio-mahaiak eskaintzak onartu edo alde batera utzi dituen jakinaraziko du.

17.2.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK IRAKURTZEA.

Kontratazio-mahaiak, dagozkion gutun-azalak ireki ondoren, onartuak izan diren lizitatzaileek aurkeztutako B gutun-azalak zabalduko ditu saio publiko batean eta eskaintzak irakurriko ditu.

18.- ESKAINTZAK EBALUATZEA.

Jarraian, kontratazio-mahaiak jarduketa hauek egingo ditu beharrezkoak diren saioetan:

18.1.- Eskaintzek baldintza orokorren 14.1 klausulan ezarritakoa alde batera uzteko arrazoiren bat ote duten egiaztatuko du eta, hala badagokio, alde batera uzteko akordioa onartuko du.

18.2.- Onartutako eskaintzek kontratuaren klausula espezifikoen 22.3 klausulan ezarritako mugak gainditzen ote dituzten aztertuko du eta, gaindituz gero, SPKLren 149.4 artikuluan aurreikusitako jarduketak egingo ditu. Kontratazio-mahaiak audientziarako epea zehaztuko du eskaintzen ezaugarriei erreparatuz eta epe hori ezingo da hiru (3) egun baliodunetik beherakoa eta hamar (10) egun baliodunetik gorakoa izan.

Prozedura hori amaitzean, kontratazio-organoari proposatuko dio eskaintzak onartzea edo bete ezin direnak alde batera uztea.

18.3.- Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu eta onena zein den zehaztuko du, esleipen-irizpide bakoitzean eskaintza bakoitzak lortutako puntuazioak gehituz.

Kalkulatzeko, ez ditu kontuan hartuko alde batera uzteko proposatu dituen eskaintzak.

18.4. SPKLren 132. eta 150. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-organoak AVC/LEAri jakinaraziko dizkio lizitazio honen esparruan ezagutzen dituen egitate edo zantzu guztiak, baldin eta lehiaren defentsari buruzko legeria urratzen badute. Bereziki, taldeko akordio, erabaki edo gomendio zantzu oro, edo lizitatzaileen artean hitzartutako edo nahita paraleloa den praktika oro, kontratazio-prozesuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzeko helburua duena edo izan dezakeena.

Bi eskaintza edo gehiagok puntuazio berbera lortu badute, eskaintza horiek aurkeztu dituzten lizitatzaileei eskatuko die kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan adierazitako berdinketa apurtzeko irizpide espezifikoak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentuak emateko gehienez ere hamar (10) eguneko epean. Kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan ez bada irizpide espezifikorik ezarri, baldintza orokorren 19. klausulan jasotako berdinketa apurtzeko irizpideak hartuko dira kontuan.

19.- BERDINKETA EBAZTEKO IRIZPIDEAK.

Kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan ez bada aurreikusten, kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ostean hainbat eskaintzaren arteko berdinketa irizpide sozial hauen bitartez apurtuko da. Irizpide horiek eskaintzak aurkezteko epearen amaierari egingo diote erreferentzia:

a) Lizitatzaile bakoitzaren plantillaren barruan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden langileen ehunekorik altuena duena. Berdinketa baldin badago, plantillan desgaitasuna duten langile finko gehien dituena edo gizarteratze-prozesuan dauden langile gehien dituena nabarmenduko da.

b) Lizitatzaile bakoitzaren plantillaren barruan behin-behineko kontratu gutxien dituena.

c) Lizitatzaile bakoitzaren plantillaren barruan emakume enplegatuen ehunekorik altuena duena.

d) Aurretik aipatutako irizpideekin ez bada berdinketa apurtu, zozketa.

Irizpide horiek aplikatzeko, lizitatzaileek dagozkien lan-kontratuen, Gizarte Segurantzako kotizazio-dokumentuen edo aurretik aipatutako irizpide sozialak egiaztatzeko onartutako beste edozein dokumenturen bidez egiaztatu beharko dituzte.

IV.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA.

20.- ESLEITZEKO PROPOSAMENA.

Kontratazio-mahaiak goitik beherako puntuazioaren arabera sailkatuko ditu eskaintzak eta sailkapen horretan oinarrituta, dagokion esleipen-proposamena igorriko dio kontratazio-organoari.

Kontratazio-organoak kontratazio-mahaiaren proposamena onartuko du.

21.-ESLEITU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

21.1.- Kontratazio-organoak esleipen-proposamena onartzean, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentu hauek aurkezteko hamar (10) egun balioduneko epean, dagokion eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

1.- Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko:

1.1. Pertsona juridikoak diren lizitatzaile espainiarrek eskritura edo eratze-dokumentuaren bidez, estatutuen edo sortze-aktaren bidez egiaztatuko dute beren jarduteko gaitasuna. Dokumentu horietan jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira dagokien erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera.

1.2. Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Espazio Ekonomikoari buruzko akordioa sinatu duten estatuetako lizitatzaile ez espainiarrek SPKLren 84.2 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

1.3. Atzerriko gainerako lizitatzaileek SPKLren 84.3 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute beren jarduteko gaitasuna.

2.- Ahalordetzea: eskaintza sinatzen duen pertsonak ez badu bere izenean jarduten edo lizitatzailea sozietate bat edo pertsona juridiko bat denean sinatzaileak ahalordetzea aurkeztu beharko du. Lizitatzailea pertsona juridiko bat denean, ahalmen hori behar bezala erregistratuta egon beharko da dagokion Erregistro Publikoan, pertsona juridiko motaren arabera, araudi aplikagarriaren arabera derrigorrezkoa baldin bada erregistratuta egotea.

3.- Kaudimena: kontratuaren klausula espezifikoen 21.1 klausularen arabera derrigorrezkoa baldin bada kaudimenaren gutxieneko baldintza batzuk izatea, lizitatzaileak kontratuaren klausula espezifikoen 25.1 klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du, egiaztatzeko, baldin eta eskakizun horiek ez badira sailkapenarekin behar duten kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitakoa ordezkatu. Kasu horretan, kontratuaren klausula partikularren 21.3 klausulan eskatutako sailkapena duela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da

4.- Gaikuntza enpresarial edo profesionala: kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan adierazten bada eskaintzak aurkezteko amaierako epean gaikuntza izan beharra dagoela.

5.- Lizitatzaileak kontratuaren exekuzioan atxiki behar izan dituen baliabide materialak eta giza baliabideak eskuragarri izatea: kontratuaren klausula espezifikoen 25.2 klausulan jasotako dokumentazioa.

6.- Kontratuaren iraunaldi osoan zehar beste erakundeen kaudimena eta bitartekoak eskuragarri izatea: lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta bitartekoak erabili baditu, **IV.1 ERANSKINEAN** jasota dagoen "Beste erakunde batzuen kaudimena eta bitartekoak izatearen konpromisoa" entregatu beharko du.

7.- Kontratatzeko debekurik ez izatea: SPKLren 85. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzeko dokumentazioa (aitorpen erantzulea, **IV.2 ERANSKINAren arabera)**.

8.- Eskaintza modu independentean prestatzea: eskaintza modu independentean prestatzeari buruzko berariazko adierazpena, **IV.3. ERANSKINA** betez.

9.- **Tratamendu-eragilearen akordioa, SPRIren sistemara sarbidea duena:** lizitatzaileak SPRIren sistemara sarbidea duten datu pertsonalen tratamendua egiten badu, **IV.4 ERANSKINA beteta**.

10.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea: sektore publikoarekin kontratatzeko zerga-betebeharrak egunean daudela egiaztatzeko ziurtagiria eta sektore publikoarekin kontratatzeko Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean daudela egiaztatzeko ziurtagiria. Lizitatzaileak hainbat lurraldetan ordaindu behar baldin baditu zergak, Administrazio eskudun bakoitzak igorritako ziurtagiriak entregatu beharko ditu.
Atzerriko lizitatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak (edo baliokideak) betetzen dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, beren jarduera gauzatzen duten lekuetan (Espainiatik kanpo edo Espainia barruan).

11.-Bermea: behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria (kontratuaren klausula espezifikoen 8.2 klausulan eskatu ez bada izan ezik) eta, hala badagokio, berme osagarriarena. **IV.5 eta IV.6 ERANSKINETAKO** ereduen arabera, banku-abalaren edo kauzio-aseguruaren kasuan.

12.- Publizitate-gastuak: kontratuaren klausula espezifikoen 7. klausulan hala adierazi baldin bada, dagozkion publizitate-gastuak ordaindu izanaren ziurtagiria.

13.- Gordetako kontratuak: kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 edo 20.8 klausularen arabera kontratua gordeta baldin badago, lizitatzaileak dokumentu bidez egiaztatu beharko du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

14.- Hala badagokio, aurretik kopia soilean aurkeztutakoen artean eskatzen diren originalak.

Dagozkion ziurtagiriak bitarteko elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez igor daitezke.

Baldintza orokorren 11.5 klausulan aipatutako erregistroetan, zerrendetan eta datu-baseetan izena emateak klausula horretan adierazitako ondorioak izango ditu, erregistro, zerrenda eta datu-base horietan ageri diren datuen egiaztapenari dagokionez, betiere sarbidea doakoa bada.

21.2.- Eskakizuna ez bada behar bezala betetzen adierazitako epearen barruan, eskaintza alde batera utzi duela aintzat hartuko da. Kasu horretan, jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatzea (BEZik gabe), zigor gisa. Lehenik eta behin, behin-behineko bermetik kenduko da zenbateko hori, halakorik balego, betiere, SPKLren 71.2 artikuluaren a) hizkian ezarritakoa alde batera utzi gabe.
- Hurrengo lizitatzailearengandik dokumentazio berbera jasotzea, eskaintzen sailkapena jarraituz.

22.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA.

22.1.- Kontratazio-organoak proposamen esleipendunak aurkeztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun balioduneko epean esleituko du kontratua.

22.2.- Adjudikazio-ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta, hala badagokio, balio-judizioa egitea eskatzen duten irizpideak ebaluatzeko erabili diren eskaintzaren zatien balorazio-txostena ere bai; hamabost (15) eguneko epean argitaratu beharko dira irizpideok kontratatzailearen profilean.

22.3.- SPKLren 44. artikuluaren errekurtso bereziaren ebazpenaren ondorioz kontratazio-organoak adosten badu kontratua beste lizitatzaile bati esleitzea, lizitatzaile horrek hamar (10) egun balioduneko epea izango du baldintza orokorren 21. artikuluan jasotako dokumentazioa aurkezteko.

22.4.- Nolanahi ere, esleipena bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko da.

23.- KONTRATUA GAUZATZEA.

23.1.- Kontratua formalizatuko da SPKLren 153. artikuluan xedatuta datozen baldintza eta epeetan, dokumentu hauek aurkeztu ostean:

a) ABEE eratzeko eskritura publikoa, esleipendunak ABEE baten barruan aurkeztu badira.

b) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan eskatzen diren aseguru-kontratuen polizak. Kontratistak agertu beharko du aseguratu gisa. Gainera, ordainketaren egiaztagiriak gehitu beharko dira.

Esleipenduna ABEE bat baldin bada, aurkeztu beharreko aseguru-kontratuaren poliza ABEE horren izenean egon behar da.

c) Kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan zehaztuta dagoen kasuetarako, gaikuntza enpresarial edo profesionala, klausula horretan adierazten bada gaikuntza hori kontratua sinatu aurretik izan behar dela.

d) Adierazitako dokumentazioa, hala behar izanez gero, kontratuaren klausula espezifikoen 26.4 klausulan.

23.2.- Kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, perfekzionatzen den unetik hamabost (15) eguneko epean, gehienez ere. Halaber, kontratua erregulazio harmonizatuaren mende baldin badago, formalizazioaren iragarkia bidaliko da Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, formalizatu eta gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean.

23.3.- Ezin bada kontratua gauzatu legez adierazitako epeetan esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, jarduketa hauek gauzatuko dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatzea (BEZik gabe), zigor gisa. Lehenik eta behin, behin-betiko bermetik kenduko da zenbateko hori, halakorik balego, betiere, SPKLren 71.2 artikuluaren b) hizkian ezarritakoa alde batera utzi gabe.
- Kontratua hurrengo lizitatzaileari esleitzea, eskaintzen sailkapena kontuan hartuta, aldez aurretik, baldintza orokorren 21.1 klausulan jasotako dokumentazioa eskatuko zaio eta aurkeztu egin beharko du.

23.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulan behin-behineko bermea eskatu baldin bada, kontratua sinatu ondoren, automatikoki iraungiko da eta kontratista izango ez diren lizitatzaile guztiei itzuliko zaie automatikoki. Bermea itzultzeko, aurkezteko erabilitako erregimen berbera erabiliko da.

V.- KONTRATUA GAUZATZEA.

24.- KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Kontratua sustatu duen sailak kontratuaren jarraipena egiteko eta kontratua modu arruntean gauzatzeko dituen eginkizunak alde batera utzi gabe, kontratuaren ardura duen pertsonari dagokio lanak ikuskatzea eta ikuskatzea, eta hark eginkizun hauek izango ditu:

a) Baldintza orokorren 25.2 klausulan aurreikusitako lan-programa onartzea proposatzea kontratazio-organoari.

b) Prestazioa behar bezala eskaintzen dela bermatzeko jarraibideak idatziz ematea.

c) Baldintza orokorren 33.1 klausulan ezartzen diren zerbitzuen ziurtagiriak onartzea.

d) Baldintza orokorren 33.2 klausulan adierazitakoak, prestazioa behar bezala exekutatzen dela eta jasotzen dela egiaztatzeko.

e) Kontratistak kontratuaren baitan dituen betebeharrak betetzen dituela ikuskatzea eta egiaztatzea, balizko ez-betetzeen berri ematea kontratazio-organoari eta, hala badagokio, kontratua bertan behera uzteko edo zigorrak ezartzeko proposamena egitea.

f) Baldintza orokorren 26. klausularen arabera, kontratuaren exekuziora atxiki beharrekoak ziren giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko baimena ematea.

g) Beharrezkoak diren aldaketak proposatzea.

h) Kontratistari kontratuaren exekuziora atxikita dauden langileen lan-baldintzei buruzko datuak eskatzea.

i) Kontratistari dokumentazio gehigarria eskatzea, kontratuaren iraupen osoan zehar hirugarrengo erakundeen kaudimena eta/edo bitartekoak dituela egiaztatzeko. Kaudimen eta/edo bitarteko horietan oinarritu zen kontratua esleitzeko prozeduran parte hartzeko.

j) Kontratistak azpikontratistei eta/edo hornitzaileei ordaintzeko duen betebeharra betetzen duela egiaztatzea, baldintza orokorren 28.3.2 klausulan xedatutakoaren arabera.

k) Exekuzioan atzerapenak baldin badaude, txosten bat igortzea, adierazteko ea atzerapena kontratistari egotz dakiokeen.

l) ABEEren osagarriak aldatzeari eta lagatzeari buruzko baldintza orokorren 36. klausulan jasotako txostenak igortzea.

m) Kontratistari eskatzea akta bidez ziurta dezala kontratuaren exekuzioaren amaieran datu pertsonalak zituzten euskarri guztiak itzuli dituela edo fitxategi guztiak ezabatu dituela.

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.2 klausulan ageri den kontratuaren arduradunaren esleipena aldatzen bada, idatziz eta berehala jakinaraziko zaio kontratistari.

25.-ZERBITZUAK GAUZATZEA.

25.1.- Kontratu-dokumentuei eta jarraibideei lotzea.

Zerbitzuak exekutatzean zorrotz beteko da kontratuzko dokumentuek ezartzen dutena, kontratistaren eskaintza, eta exekutatzean edo interpretatzean kontratuaren arduradunak idatziz emandako jarraibideak.

25.2.- Lan-programa.

Kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 klausulan hala ezartzen bada, kontratistak kontratua sinatu eta hurrengo zazpi (7) egun balioduneko epean lan-programa bat aurkeztu beharko du, PTPPri dagokion klausulan zehaztutako datuekin eta informazioekin.

Lan-programa AKPPn eta hala badagokio eskaintzan finkatutako epeetara egokituko da eta kontratazio-organoak onartuko du hamabost (15) egun balioduneko epean.

25.3.- Baimenak.

Prestazioa egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia publiko zein pribatu guztiak lortzea eta sortzen diren gastuak ordaintzea kontratistaren betebeharra dira.

25.4.- Aseguruak.

Kontratista derrigorrezko aseguruak kontratatzera dago behartuta, baita, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan ezarritakoak kontratatzera ere.

25.5.- Lankidetza.

Kontratistak beharrezkoak diren zerbitzu profesional guztiak eskaini beharko dizkio botere esleipendunari inolako kostu gehigarririk gabe, kontratuaren xedea behar bezala garatzeko eta betetzeko, hala nola azalpenak emateko bilerak, informazioa publikoari... Halaber, kontratuaren arduradunari sarbide librea eman beharko dio prestazioa exekutatzen den lekuetara.

25.6.- Kontratistaren erantzukizuna.

Kontratista da garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazioen eta zerbitzuen arduraduna, baita kontratuaren exekuzioan izandako omisioetatik, akatsetatik, metodo desegokietatik edo ondorio okerretatik botere adjudikatzailearentzako edo hirugarrengoentzako eratorritako ondorioen arduraduna ere.

25.7.- Indemnizazioa obra-proiektuak egiteko kontratuetan.

Proiektuan aurreikusitako obraren exekuzioaren aurrekontua bere kostu errealetik % 20 baino gehiago desbideratzen bada, bai gehiegizkoa delako, bai gutxiegi delako, kontratista aholkulariari egotz dakizkiokeen akatsengatik edo omisioengatik, azken horrek botere adjudikatzaileari indemnizatuko dio. SPKLren 315. artikuluan aurreikusitako baremoaren arabera.

26.- GAUZATZEKO ERABILITAKO BITARTEKOAK.

26.1.- Baliabideak atxikitzeko konpromisoa.

Kontratistak betebeharra du bitartekoak atxikitzeko konpromisoan **(II.2. ERANSKINA)** adierazitako bitartekoak atxikitzeko kontratuaren exekuzioan, baita kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren bitartekoak ere, kontratuzko dokumentuetan ezarritako baldintzen eta epeen arabera.

Adierazitako bitarteko materialak ordezkatzeko aldez aurretik jakinarazi beharko zaio kontratuaren arduradunari, hala, egiaztatzen duten emandako dokumentuen bidez, egiaztatu ahal izango du proposatutako bitartekoak eskatzen diren baldintzak biltzen dituela eta baimena eman beharko du zazpi (7) egun balioduneko epean. Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu bitarteko horrek ez dituela baldintzak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, eta bere erabakiaren arrazoiak azalduko dizkio. Kontratistak beste bitarteko bat proposatu ahal izango du.

Adierazitako giza baliabideak klausula honetan ezarritakoaren arabera soilik ordezkatu ahal izango dira. Nolanahi ere, ordezkapenen ondorioz suerta daitezkeen lan-ingurunera egokitzeko balizko eragozpenak zuzendu beharko dira ordezkatutako pertsona eta pertsona berria gainjarriz, beharrezkoa den denbora guztian zehar eta inolako kostu gehigarririk gabe.

Ordezkapena prozedura eta baldintza hauen arabera egingo da:

a) Kontratistak eskatutako aldaketa: justifikatutako arrazoiak direla eta, ordezkapenen bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari hamabost (15) egun baliodun lehenago —behin-behineko lanerako ezintasun-kasuetan edo heriotza-kasuetan izan ezik—, eta datu hauek adieraziko ditu:

- Ordezkatu nahi den pertsonaren identifikazioa eta ordezkatzeko arrazoia.
- Eskatutako baldintzak betetzen dituen hautagai baten proposamena, hori egiaztatzen duten dokumentuekin batera.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, ordezkapena baimenduko du kontratuaren arduradunak, edo, hautagaiak eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ondorioztatuz gero, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, eta bere erabakiaren arrazoiak azalduko ditu. Kontratistak beste hautagai bat proposa dezake.

b) Botere adjudikatzaileak eskatutako aldaketa: kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoa iruditzen bazaio ordezkapenen bat egitea, idatziz jakinaraziko dio kontratistari arrazoiak adieraziz. Kontratistak, hamabost (15) egun balioduneko epean, eskatutako baldintzak betetzen dituen hautagai bat proposatuko du gutxienez, hala egiaztatzen duten dokumentuekin batera.
Zazpi (7) egun balioduneko epean, ordezkapena baimenduko du kontratuaren arduradunak, edo, hautagaiak eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ondorioztatuz gero, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, eta bere erabakiaren arrazoiak azalduko ditu. Kontratistak hautagai berri bat proposatu beharko du aurreko atalean adierazitako terminoetan.

Arau horiek aplikatuko dira kaudimena egiaztatzeko emandako baliabideen kasuan, kontratistak lizitazio-fasean beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo bitartekoak erabili baditu.

26.2.- Langileei buruzko arau espezifikoak.

Zerbitzuaren prestaziora atxikitako langileak kontratistaren mende egongo dira soilik, eta hark izango ditu enplegatzaileari dagozkion eskubideak eta betebeharrak. Horretarako, betebehar hauek onartuko dituzte:

a) Kontratuaren exekuziora atxiki beharreko langileak aukeratzea, botere adjudikatzaileak pleguan ezarritako kualifikazio profesionalaren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko duen ahalmena alde batera utzi gabe.

b) Langileen egonkortasuna bermatzea eta aldaketak puntualak eta justifikatutako arrazoiengatik izatea, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko (ordezkatzea justifikatzen duten arrazoiak daudenean). Halaber, botere adjudikatzaileari jakinarazi beharko zaio uneoro.

c) Enplegatzaile orok kontratuaren exekuzioari atxikitako langileen gainean duen berezko zuzendaritza-boterea gauzatzea, modu erreal, eraginkor eta etengabean. Zehazki, soldatak negoziatu eta ordainduko ditu, baimenak, lizentziak eta oporrak eman, ordezkapenak zehaztu absentzia kasuetan, Gizarte Segurantzako betebeharrak bete, kotizazioak eta prestazioak ordaindu hala dagokionean, laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak bete, diziplinazko ahala gauzatu, baita enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik eratorritako eskubideak eta betebeharrak ere.

d) Bermatzea atxikitako langileen jardueraren garapena ez dela mugatzen pleguetan kontratuaren xede gisa ezarritako jardueraren funtzioetara.

e) Gutxienez plantillako langilea den koordinatzaile bat izendatzea, jarduera hauek garatzeko:

- Kontratistaren hizketakidea izatea botere adjudikatzailearen aurrean, kontratistaren eta kontratura atxikitako langileen arteko komunikazioa bideratuz alde batetik, eta botere adjudikatzailearen eta langileen artekoa bestetik, kontratuaren exekuziotik eratorritako kontu guztietarako.
- Lana banatzea langileen artean eta prestazioa behar bezala exekutatzeko beharrezko jarraibideak ematea.
- Langileek esleituta dituzten funtzioak behar bezala gauzatzen dituztela berrikustea eta lanpostura joaten direla kontrolatzea.
- Oporren erregimena antolatzea.

f) Botere adjudikatzaileari aldizkako oporren edo opor iraunkorren berri ematea, kontratua exekutatzeko atxikitako lantaldea osatzeko.

26.3.- Lan-baldintzei buruzko informazioa.

Kontratista derrigortuta dago kontratuaren arduradunari hurrengo ataletan jasotako datuak eta dokumentuak ematera, kasu bakoitzean adierazitako epeetan eta baldintzetan:

a) Kontratuaren exekuziora atxikitako langile bakoitzaren lan-baldintzei buruzko datuak: helbide elektroniko bidez aurkeztuko dira, eta behar bezala bete beharko da **II.5. ERANSKINEAN** ageri den erantzukizunpeko formularioa, dagokion eskakizuna jaso eta hurrengo zazpi (7) egun balioduneko epean.

b) Kontratuaren arduradunak emandako datuen egiazkotasuna egiaztatzeko eta enplegatzaile gisa dituen lan-betebeharrak betetzeko eskatzen dituen dokumentuak eman beharko ditu kontratistak: helbide elektroniko bidez bidaliko ditu, hamar (10) egun baliodunеko epean, dagokion eskakizuna jasotzen duen unetik hasita.

Kontratuaren arduradunak edozein unetan eska dezake informazio hori kontratua indarrean dagoen bitartean, SPKLren 130. artikuluan xedatutakoaren arabera.

26.4.- Kontratua egikaritzeko lekua.

Prestazioa botere adjudikatzaile kontratatzailearen bulegoetan edo instalazioetan egingo da. Hori ezin izango balitz, plantillak nahastea ekiditeko, kontratistaren langileek ez dituzte lan-espazioak eta lantokiak partekatuko botere adjudikatzailearen mende dauden langileekin, baldintza zehatzengatik hori ezinezkoa den kasuetan izan ezik; eta, gainera, langileak eta kontratistaren bitartekoak dagokien bereizgarrien bitartez identifikatuko dira, besteak beste, uniformeen edo errotuluen bitartez.

26.5.- Ukigabetasun-araua.

Kontratistak ez baditu klausula honetan ezarritako betebeharrak betetzen eta botere adjudikatzaileak zenbateko batzuk ordaindu behar baldin badizkio modu solidarioan kontratistari, dagozkien legezko ekintzen bidez ordaindutako zenbatekoak eragina izango du kontratistarengan.

26.6.- Langileen subrogazioa.

Laneko araudiaren arabera langileak subrogatu beharko balira, kontratua zerbitzua eskaini duen kontratista ez den beste operadore ekonomiko bati esleitzen bazaio, azken horrek ordaindu beharko ditu subrogazioaren ondorioz ordaindu gabe geratu diren langileen soldatak, baita sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioak ere, baita kontratua baliogabetzen bada ere. Betebehar hori ez da inolaz ere kontratista berriarena izango.

Kasu horretan, botere adjudikatzaileak egiaztatzen duenean aipatutako soldatak ordaindu gabe daudela, dagokion kopurua atxikiko dio kontratistari soldatak ordaintzea bermatzeko, eta ez dio behin betiko bermea itzuliko soldata horiek ordaindu dituela egiaztatu arte.

27.- LAN ARLOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOKO BETEKIZUNAK.

Kontratistak betebeharra du lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasunean eta osasunean indarrean dauden xedapenak betetzeko, eta zehazki hauek:

27.1.- Garatu beharrezko prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren mende baldin badaude, kontratistak betebeharra du dagozkion laneko ordenantzaren eta hitzarmen kolektiboaren xedapenak betetzeko.

27.2.- Kontratistak lanean derrigorrezkoak edo beharrezkoak diren segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu, betiere, langileen bizitzan, osotasunean eta osasunean eragina izan dezaketen arriskuak prebenitze aldera.

27.3.- Halaber, indarrean dagoen araudiak laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako betebeharrak beteko ditu eta kontratatutako jarduerarekin hasi aurretik, betebehar hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:

a) Indarrean dagoen legediarekin bat datorren antolaketa-modalitate prebentiboa ezarri izana.

Laneko arriskuen prebentzioa integratzea enpresaren kudeaketarako sistema orokorrean, laneko arriskuen prebentziorako plana ezarriz eta aplikatuz, 1997ko urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuaren Araudiaren 2. artikuluaren arabera. Eskakizun hori egiaztatuta geratuko da OHSAS 18001 arauan oinarritutako laneko arriskuen prebentziorako kudeaketa-sistema bat ezarrita baldin badago, NLEren Segurtasuneko eta Osasuneko sistemei buruzko jarraibideak jarraitzen badira edo beste arau baliokideren bat jarraitzen bada, betiere sistema horrek eskatutako neurriak betetzen direla ebaluatu eta egiaztatzen badu. Betebehar hori betetzeko, beste edozein proba-bitarteko egokiren bidez ere egiaztatu ahal izango da.

c) Kontratatutako jarduerari dagokion jarduera prebentiboaren arriskuak eta plangintza ebaluatzea.

d) Laneko arriskuen prebentziorako 31/1995 Legearen V. atalean aurreikusitako kontsulta eta parte-hartzea gauzatzeko modua arautzen duen idatzizko prozedura izatea edo, hala badagokio, Segurtasuneko eta Osasuneko Batzordearen bileren aktak.

e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen direla kontrolatzeko prozedura bat izatea, eta, hala badagokio, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abar aurreikusitako diziplinazko neurriak hartzea, langile guztien segurtasuna bermatzeko.

f) Arriskuen ebaluazioarekin lotutako prebentzio-baliabideak behar dituzten lanen eta/edo jardueren zerrenda bat izatea.

g) Kontratuaren exekuzioan esku hartzen duten langile guztiek, bai propioek, bai artikulu, sartzeko unean arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jasotzea, baita bere jardueraren arriskuei buruzko beharrezko prestakuntza jasotzea ere (31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak), laneko arriskuen prebentzio-planari buruzko prozeduraren arabera. Zehazki, norberaren babeserako ekipamenduen erabilerari buruzko prestakuntza ematea.

h) Hala badagokio, beharrezkoak diren norberaren babeserako ekipamenduan entregatu izanaren ziurtagiria izatea.

i) Jateko eta atseden hartzeko zerbitzu egokiak eskaintzea eta baita zerbitzu higienikoak eta aldagelak ere, langileen kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.

j) Langileen garapena eta kontratazioa planifikatzea, langileen atseden-egunak errespetatuz eta aparteko orduak egitea ezohiko kasua izatea.

27.4.- Kontratistak kontratuaren exekuzioaren zati bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren ziurtagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratistei eta botere adjudikatzaile kontratatzaileari entregatu.

27.5.- Langileek istripuren bat edo edozein motatako kalteren bat izanez gero lanean ari diren bitartean, kontratistak indarrean dauden arauetan ezarritakoa beteko du bere erantzukizunpean, eta erantzukizuna ez da inolaz ere botere adjudikatzailearengana iritsiko.

28.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK.

Exekutatzeko baldintza berezi horiek eta kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan jasotakoak, kontratistak zein azpikontratistak bete beharko dituzte.

28.1.- Linguistikoak.

28.1.1.- Botere adjudikatzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan euskara erabiliko da normalean. Kontratua exekutatzerako garaian, hau esan nahi du "normalean euskara" erabiltzeak:

a) Ahozko komunikazioetan, kontratua exekutatzeko garaian botere adjudikatzailearekin harremana duten eta euskaraz badakiten pertsonek hizkuntza horretan hitz egingo dute hasiera batean. Botere adjudikatzailea euskaraz zuzentzen baldin bazaie kontratuaren exekuzioan atxikitako langileei eta haiek nahikoa gaitasuna ez badute hizkuntza horretan, exekuzioa gauzatuko duen enpresak behar diren bitartekoak edo euskarazko nahikoa gaitasuna duten langileak jarriko ditu, botere adjudikatzailearekiko harremana, kontratuaren exekuzioaren ondorioa dena, euskaraz gertatu ahal izateko.

b) Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, igorleak eta hartzaileak euskaraz soilik egitea erabakitzen badute salbu.

28.1.2.- Kontratuaren xedea gauzatzeak herritarrei zerbitzuak ematea edo hirugarrenekin edo, oro har, herritarrekin harremanak izatea badakar:

a) Enpresa kontratistak hizkuntza-araudia eta, hala badagokio, kontratuaren agirietan adierazitako hizkuntza-klausulak bete beharko ditu prestazioa emateko unean. Hizkuntza-baldintzei dagokienez, enpresak prestazioa Administrazioari eska dakizkiokeen baldintza berberetan egin dezakeela egiaztatu beharko du.

b) Enpresa kontratistak ahaleginak egingo ditu herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz izan daitezen. Horretarako, enpresa kontratistan zerbitzua ematen duen pertsonak euskaraz hasiko du elkarrizketa, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du. Enpresa kontratistak zerbitzuaren erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan idatziko ditu zerbitzua emateko beharrezkoak diren ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta bestelako idazkiak.

Edozein kasutan, kontratistak beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak bideratu behar ditu zerbitzuaren publiko hartzailearekiko arreta, informazioa eta komunikazioa uneoro euskaraz egin ahal izateko.

Legea edo aplikagarria den hitzarmen kolektiboaren dagozkion klausulak aplikatzeagatik adjudikatzaile berriak subrogazioak egin behar baditu iraungitako kontratura atxikitako langileen kolektiboarekin eta kolektibo horrek ez badu gaitasun linguistikorik kontratuzko klausulen pleguan ezarritako arlo horretako baldintzak betetzeko, kontratista berriak kontratua gauzatzeko beharrezkoa den euskararen gaineko ezagutza eta erabilera duten pertsonekin egingo ditu ordezkapenak.

28.1.3.- Azterlanak, txostenak, proiektuak edo antzeko lanak egitea helburu duten kontratuetan, bi hizkuntza ofizialetan entregatu beharko dira PTPPan hala ezartzen bada, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.

28.2.- Sozialak edo enpleguari buruzkoak:

28.2.1.- Lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden legearen, arauen eta konbentzioen xedapenak betetzea.

28.2.2.- Baldintza orokorrei buruzko 26.3 klausulan xedatutakoa betetzea.

28.2.3.- Kontratuaren exekuzio osoan zehar, aplikagarria den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzea, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera. Ordaindutako soldata ezingo da inolaz ere hori baino baxuagoa izan.

28.2.4.- Gardentasun instituzionala ematea kontratuaren exekuziotik eratorritako datu guztiei.

28.3.- Azpikontratistei eta hornitzaileei egindako ordainketak egiaztatzea:

28.3.1.- Kontratuaren arduradunak hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten eta hornitzaileen zerrenda xehea igortzea, haien parte-hartzea perfekzionatzen denean, ordaintzeko epearekin harreman zuzena duten bakoitzaren azpikontratazio- edo hornikuntza-baldintza horiekin batera.

28.3.2.- Kontratuaren arduradunak hala eskatzen duenean, aurreko puntuan deskribatutako azpikontratistei eta hornitzaileei ordainketak egin zaizkiela egiaztatzeko ziurtagiria igortzea, prestazioa amaitu ondoren, SPKLren 216. artikuluan eta merkataritzako harremanetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeen barruan.

29.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

29.1.- Konfidentzialtasuna.

Kontratua gauzatzean kontratistak eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala izango da. Kontratistak eta kontratua gauzatzeko bere ardurapean dauden langileek ezingo dute inolako informaziorik erabili beraientzat, ez eta hirugarrenei eman ere, SPRIren baimenik gabe, eta eskura dituzten bitarteko guztiak ezarri beharko dituzte informazio hori isilpekoa eta isilpekoa izan dadin.

29.2.- Datu pertsonalen tratamendua lizitazio-prozeduran.

SPRIk tratatuko ditu lizitatzaileetako bakoitzak lizitazio-prozeduran aurkezten dituen datu pertsonalak (legezko ordezkarien, harremanetarako pertsonen eta lantaldeen datuak barne) eta esleipendun suertatzen den lizitatzaileak kontratua formalizatzeko eta/edo

exekutatzeko ematen dituen datu pertsonalak, lizitazioko partaidetza kudeatzeko xedez eta, esleipendunaren kasuan, aldeen artean finkatzen den kontratuaren exekuzio egokia formalizatu, kudeatu eta kontrolatzeko. Horrela jokatuko da kontratazio publikoan aplikagarria den araudian oinarrituta, eta, esleipendun suertatzen den lizitatzaileari dagokionez, aldeen artean finkatzen den kontratu-harremanean oinarrituta.

Hirugarren interesdunen datuak ematen dituztenean, lizitatzaileek eta esleipendunak datu horiek emateko legezko eskakizunak betetzen direla bermatuko diote SPRIri.

Datu pertsonalak honako hauei soilik helaraziko zaizkie: (i) SPRIk bete behar dituen legezko betebeharrei jarraituz, datu horiek helarazi behar dizkien entitate eta/edo organismo publikoei; eta (ii) prozeduran interesa dutenei, baldin eta datuak eskuratzeko eskatzen badute kontratazio publikoan aplikatzekoa den araudiarekin bat etorriz. Ez da aurreikusten datu horien nazioarteko transferentziarik egitea.

Testuinguru honetan adierazi behar da ezen, kontrakoa berariaz adierazten ez bada, datu horiek ematea eta ondoren helaraztea jada azaldu diren baldintzetan betebeharra izango dela, eta ematen ez badira edo datu okerrak ematen badira, baliteke lizitazioko partaidetza ezin kudeatzea eta, hala badagokio, dagokion kontratua ezin egitea.

Lizitatzaileetako bakoitzak ematen dituen datuak kontratazio-prozedura behar bezala gauzatzeko behar den aldian soilik gordeko dira, baita epe gehigarrietan ere, baldin eta SPRIk horrelakoak finkatu behar baditu legezko betebeharrak betetzeko. Esleipendunaren kasuan, kontratu hau modu egokian gauzatzeko beharrezkoa den denbora-tartean baino ez dira gordeko emandako datu pertsonal horiek, eta, beharrezkoa denean, legezko betebeharrak betetzeko SPRIk aintzat hartu behar dituen kontserbazio-epe gehigarrietan zehar.

Interesdunek (i) beren datu pertsonalak eskuratzeko eskaera egiteko eskubidea dute, eta, halaber, datu horiek zuzendu eta ezabatu ditzakete, tratamendua mugatu, beste norabait eraman edo tratamenduari uko egin, hala dagokionean eta posta elektronikoko mezu bat bidalita lopd@spri.eus helbidera; eta (ii) datuak babesteko SPRIko ordezkariarekin harremanetan jartzeko eskubidea dute, posta elektronikoko mezu bat bidalita dpd@spri.eus helbidera.

Era berean, interesdunek eskubidea dute erreklamazio bat jartzeko Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren aurrean, bereziki, eskubideak nahi bezala baliatu izan ezin direnean.

29.3.- Datu pertsonalen tratamendua kontratua gauzatu artean.

2016/679 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak (aurrerantzean, **DBEO**) dakarzkion betebeharrak bete behar ditu esleipendunak, bai eta 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak (aurrerantzean, **DBEDBLO**) eta datu pertsonalak babesteari buruzko beste ezein araudi nazionalek edo Europar Batasunekoak dakarzkionak ere, kontratuaren indarraldian datuak babesteari buruz aplikagarri baldin bada, datu pertsonalak tratatzen dituelako bere jardueren esparruan, eta bere kabuz eta erabakimenez, tratamenduaren arduraduna den neurrian.

Edukia dela eta, esleipendunak datuak tratatu behar baditu SPRIren kontura eta/edo hirugarren entitateen kontura kontratua exekutatu ahal izateko (tratamenduaren karguduna SPRI baldin bada), esleipendunak, tratamenduaren karguduna/azpikarguduna den aldetik, dagokion kontratua sinatu beharko du SPRIrekin, DBEOko 28. artikuluan zehazten diren edukiarekin eta irismenarekin.

Kontratu hori eta SPRIren eta esleipendunaren arteko zerbitzuen kontratua aldi berean sinatu beharko dira.

Edozein kasutan ere, eta aipatu kontratuan xede horretarako finkatzen dena alde batera utzita, esleipendunak aurreikuspen hauek aintzat hartu behar ditu, lizitazio honen xede den kontratazioaren harira:

a) DBEOan, DBEDBLOan eta kontratuaren indarraldiak datuak babesteari buruz aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoa beteko du.

b) Datu pertsonalak tratatuko ditu plegu honetan eta kontratazioa bideratzen duen preskripzio teknikoen pleguan jasotako xedeekin soilik.

c) Kontratua formalizatu aurretik, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du, non, hala badagokio, datu pertsonalen tratamenduaren euskarri diren zerbitzarien kokapen fisikoa zehaztuko duen, eta horiekin lotutako zerbitzuak nondik emango diren.

d) Kontratuaren indarraldian aldaketarik gertatzen bada aurreko c) letran aurreikusi den erantzukizunpeko adierazpeneko informazioan, horren berri emango du.

e) Datu pertsonalak tratatuko ditu SPRIren argibide dokumentatuak soilik betez.

f) Interesdunei informazioa eman eta haien baimena lortzeko betebeharrak behar bezala beteko ditu, zeinak DBEOan eta DBEDBLOan aurreikusten baitira.

   Ondorio horietarako eta hala dagokionean, esleipendunak beharrezko bitartekoak baliatuko ditu; adibidez, informazio-klausulak inprimakietan eta interesdunekiko harremana dela-eta erabili behar diren beste dokumentu batzuetan. Nolanahi ere, beti adieraziko da (i) datuen tratamendua SPRIren kontura eta/edo hirugarren entitateen kontura egiten dela, SPRI baldin bada tratamenduaren kargudun; eta (ii) horrenbestez, SPRI eta/edo hirugarren entitatea (SPRI denean tratamenduaren kargudun) tratamenduaren arduradun bakarra dela, eta, hala, esleipenduna tratamenduaren karguduna/azpikarguduna besterik ez dela.

g) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten haren ardurapekoek konfidentzialtasun-betebehar egokia dutela bermatuko du.

h) Arriskuarekin bat datorren segurtasun-maila bat bermatzeko moduko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak aplikatuko ditu, hau guztia kontuan hartuta: teknikaren egoera, aplikazio-kostuak, tratamenduaren irismena, testuingurua eta xedeak, eta probabilitate-zein larritasun-arrisku aldakorrak pertsona fisikoen eskubide eta askatasunei dagokienez. Adierazteko besterik ez, neurri hauek hartzea balioztatuko da, besteak beste:

- Datu pertsonalak pseudonimizatzea eta datuak zifratzea.
- Tratamendurako sistemen eta zerbitzuen etengabeko konfidentzialtasuna, segurtasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia bermatzeko neurriak.
- Jazoera fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar berrezartzeko neurriak.
- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko hartzen diren neurri teknikoen eta antolakuntzakoen eraginkortasuna aldizka egiaztatu, ebaluatu eta balioztatzeko prozesuak.

i) SPRIk eskatzen dionean, honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu datuak babesteko betebeharrak betetzen dituela frogatzeko: (i) SPRIren kontura eta/edo hirugarren entitateen kontura (tratamenduaren karguduna SPRI denean) egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroaren kopia bat, eta (ii) entitateak egokitzat jotzen duen beste edozein dokumentu, baldin eta kontratistak SPRIren kontura eta/edo hirugarren entitate baten kontura (tratamenduaren karguduna SPRI denean) egiten duen datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia badu.

j) SPRIk edo hark baimendutako beste auditore batek auditoriak egiteko aukera emango du eta lagundu egingo du, baita ikuskaritza-lanak egiteko ere.

k) Segurtasun-neurriak abian jartzeaz eta ikuskatzeaz nor arduratuko den edo diren adieraziko dio SPRIri.

l) Datuen babesarekin lotuta aplikagarri den araudiak ezartzen dituen betebeharren gaineko prestakuntza eta informazioa eskainiko dizkie langileei.

Aurreko a) eta d) bitarteko letretan xedatutako betebeharrak kontratuko funtsezko betebeharrak izango dira, SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Hortaz, betetzen ez badira, kontratua suntsiarazteko kausa izango da, SPRIk erabakita.

30.- ARRISKU PENALAK ETA LEHIAREN AURKAKO JARDUERAK PREBENITZEKO SISTEMA.

Pertsona juridikoen erantzukizunari buruz Zigor Kodean finkatuta dagoen erregimena SPRIri aplikagarri izatearen kalterik gabe, SPRIko administrazio-organoak arrisku penalak eta lehiaren aurkako jarduerak prebenitzeko eta sistema bat ezarri du. Bikaintasun-politikan eskatzen den konpromiso bat da, kultura etiko eta normatiboagatik, batetik, eta delitu izan daitekeen ezein jokabide ez onartzeagatik, bestetik.

Ildo horretan, eta gardentasunaren, gobernu korporatibo egokiaren eta araudia betetzearen funtsezko printzipioak betetzeko asmoz, kontratistak aditzera ematen du jokabide-kodea, salaketak jartzeko kanalaren protokoloa eta irregulartasunak detektatuz gero jarraitu behar den jarduera-protokoloa ezagutzen dituela, zeinak SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren webgunean, https://www.spri.eus/es/portal-transparencia/grupo-spri/?fwp_epigrafe_ptransparencia=pt08, argitaratuta dauden. Kontratistak dokumentu horien irismena eta edukia ulertzen ditu, eta haietan jasota dauden balioak eta betebeharrak betetzea kontratuaren funtsezko baldintza bat dela onartzen du.

31.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIALAREN ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK.

31.1.- Lanen jabetza.

Edozein fasetan egindako lanak botere esleitzailearen jabetzakoak dira, eta, ondorioz, botere horrek edozein unetan eska dezake prestazioen zati bat entregatzea, baldin eta prestazioen behin betiko programarekin bateragarria bada eta lanen garapen egokiari eragiten ez badio.

Era berean, kontratistak prestazioa aurrez jasotzea eska dezake, eta botere esleitzaileak izango du jasotze hori onartzeko ahalmena.

31.2.- Jabetza industriala eta intelektuala.

Jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskuragarri jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori botere adjudikatzaile kontratatzaileari lagatzea.

Ondorioz, SPRIk ekoizteko formatu originalaz gain, jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak eskuratuko ditu, eta, bereziki, eskuratutako obra edo produktua erreproduzitzeko, banatzeko, publikoki komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak eta ekonomiko ustia daitezkeen gainerako eskubideak. Jabetza intelektualeko eskubide horiek esklusiboki eskuratzen dira, sinatzen den egunean dagoen edozein ustiapen-modalitateren eta/edo euskarriren gainean, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean aurreikusitako gehieneko iraupen-epean, eta munduko herrialde guztietara hedatzen den lurralde-eremu batean, salbuespenik gabe.

Eskubide horren titulartasunak lana edo amaierako produktua ez ezik, lan, zirriborro, eskema, aurretiazko dokumentu, fluxu-diagrama guztiak eta, oro har, garapenerako egindako jabetza intelektual eta industrialerako lan guztiak barne hartzen ditu.

Kontratatutako lanaren emaitzan egingo diren eta aurrez existitzen diren ekarpenen gainean egon daitezkeen hirugarrengoen erreserben eta legezko eskubideen **berri eman beharko dio** kontratistak SPRIri. Kontratistaren betebeharra da aipatutako eskubideen eta erreserben mende dauden elementu guztien eskuragarritasuna bermatzea, eta horrek izan ditzakeen kostuak bere gain hartuko ditu.

Kontratistak izango du erabateko ardura eta bere kargu egongo da eskubide horiek erreklamatzea. Hala, SPRI indemnizatu beharko du erreklamazioetatik erator daitezkeen kalte-ordainengatik, ordezkaritzagatik eta defentsagatik erator daitezkeen gastuak barne.

Kontratuaren helburua baldin bada **aplikazio informatikoak** egitea eta garatzea, aurreko paragrafoko hirugarrengoen legezko eskubideei eta erreserbei buruzko informazioaren barruan sartu beharko da erabilitako iturri guztien erreferentzia, bertsioa eta jatorria, osagarri bakoitzean aplikatutako lizentziak eta erabilera konpilazioan edo exekuzioan egiten den.

Kontratistak edo prestaketan parte hartu duen pertsona orok ezingo du lana berarentzat erabili, ezta lanaren zatiak, grabazioak, testuak, marrazkiak, argazkiak edo antzekoak hirugarrengoei eman ere. Halaber, ezingo du eduki osoa edo partziala argitaratu SPRIren idatzizko eta berariazko baimenik gabe. Halaber, ez dira ahaleginduko kontratutik erator daitezkeen jabetza industrial edo intelektualaren antzekoak edo berdinak diren eskubideak erregistratzen, eta kontratua amaitzean ere indarrean egongo da debeku hori. Nolanahi ere, kontratista izango da betebehar horiek ez betetzeagatik eratorritako kalte-ordain guztien erantzulea.

Kontratistak konpromisoa hartzen du SPRIrekin lankidetzan aritzeko eta klausula honetan aipatzen diren eskubide guztiak SPRIk eskuratzeko eta/edo bere alde babesteko beharrezkoa den dokumentazio guztia sinatzeko.

32.- ZIGORRAK.

Legez kontratistari dagokion akatsak zuzentzeko eta kalte-ordainak indemnizatzeko betebeharra alde batera utzi gabe, eta SPKLren edo baldintza orokorren 39. klausulan aurreikusitakoaren arabera kontratua bertan behera uzteko aukera baztertu gabe, kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio kontratistari arrazoi hauengatik:

32.1.- Kausak eta zenbatekoak.

a) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 13.1 klausulan adierazitako ez betetzeak: klausula horretan adierazitako zenbatekoak.

b) Atzerapenak epe osoa edo partzialak betetzeko garaian: SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluetan adierazitako zenbatekoak, kontratuaren klausula espezifikoen 13.2 klausulan beste batzuk adierazi ezean.

c) Funtsezko kontratuzko betebeharrak ez betetzea: prezioaren edo kontratua mugatzen duen gehiengo aurrekontuaren **% 1 eta % 10 artean**, ez betetzearen larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

d) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.1.4 klausulan xedatutakoa ez betetzea: azpikontratatutako zenbatekoaren **% 50era** arte.

e) Baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatutakoa ez betetzea: atzeratutako egun bakoitzeko zenbatekoa kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **% 0,01** izango da.

f) Balorazio-irizpide gisa kontuan hartu diren eskaintzaren konpromisoak ez betetzea: prezioaren edo kontratua mugatzen duen gehiengo aurrekontuaren **% 1 eta % 10 artean**, ez betetzearen larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

g) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.2 klausulan adierazitako ingurumeneko, arlo sozialeko eta laneko betebeharrak ez betetzea (horri dagokionez, 12.2.2.1 klausula ez da beteko soldatak ordaintzen ez badira edo etengabeko atzerapenak baldin badaude edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino baldintza baxuagoak aplikatzen badira): kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **% 0,5 eta % 10** artean, ez betetzearen larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

h) Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko Plana aurkezteko epea ez betetzea, betetzea dagokionean: atzeratutako egun bakoitzeko zenbatekoa euro batekoa izango da kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen 5.000,00 euro bakoitzeko.

32.2.- Prozedura.

Zigorrak kontratazio-organoaren ebazpen bidez adostuko dira eta adosteko prozeduraren barruan jarduketa hauek egingo dira:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, hautemandako ez betetzeekin eta zigorraren zenbatekoaren proposamenarekin.

b) Kontratistari audientzia bost (5) egun balioduneko epean, egokiak iruditzen zaizkion helegiteak formulatzeko.

c) Kontratazio-organoaren ebazpena.

d) Kopuruak jasotzea, ordainketa-kontzeptu oso edo partzialarengatik kontratistari ordaindu behar zaizkion kenkarien bidez edo, hala badagokio, ordaindutako bermearen bidez, aipatutako ordainketetatik kendu ezin badira.

33.- PREZIOA ORDAINTZEA.

Prezioa baldintza hauen arabera ordainduko da:

33.1.- Emandako edo egikaritutako zerbitzuen ziurtagiriak.

33.1.1.- Kontratistak zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratuaren klausula espezifikoen 19.5. klausulan adierazitako erregistroan, eta datu hauek gehitu beharko ditu:

a) Espedientearen kodea.

b) Kontratistaren izena edo izen soziala eta IFZ.

c) Emandako edo exekutatutako zerbitzuen zerrenda baloratua –adostutako prezioen arabera– (BEZik gabe).

d) Azpikontratistek exekutatutako prestazioen datuak: azpikontratistaren izena, egindako lana, ordainketaren epearekin zuzenean lotutako baldintza estipulatuak.

e) Zerbitzuei dagokien aldia (ziurtagiria partziala baldin bada).

33.1.2.- Epea eta baldintzak.

Epe eta baldintza hauetan aurkeztuko da:

a) Klausula espezifikoen 5.2 klausulak ordainketa bakarra ezartzen badu: kontratuaren exekuzioa amaitu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunen barruan ziurtagiri osoa aurkeztuko da.

b) Klausula espezifikoen 5.2 klausulak ordainketa partzialak ezartzen baditu: kontratuaren exekuzioa amaitu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunen barruan ziurtagiri partzialak aurkeztuko dira.

33.2.- Adostasuna.

Enpresa kontratistak kontratua bete duela ulertuko da hark xede osoa gauzatu duenean, kontratuko baldintzei jarraikiz eta SPRI gogobeterik baldin badago.

Hori egiaztatzeko, kontratuaren xede diren lanak amaitu izanari buruzko txostena egin beharko du esleipendunak, eta egiaztapen-txosten bat egingo du kontratuaren SPRIko arduradunak.

Onarpen-dokumentu horren kopia jasotakoan, kontratistak faktura aurkeztuko du kontratuaren klausula espezifikoen 19.5. klausulan adierazitako erregistroan.

33.3.- Ordaintzea.

Botere adjudikatzaileak faktura(k) jaso eta hurrengo hogeita hamar (30) egunetan ordaindu beharko du prezioa, aldez aurretik kontratuaren arduradunak fakturari oniritzia emanda.

Ordaintzeko betebeharrean atzerapenak baldin badaude, aurreko paragrafoan adierazitako epea betetzen den unetik aurrera, atzerapenagatiko interesak eta kobrantza-kostuen indemnizazioa ordaindu beharko dizkio kontratistari, merkataritzako harremanetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako terminoetan.

Nolanahi ere, interesak sortzeko epearekin hasteko, kontratistak eskainitako zerbitzuen ziurtagiriak eta fakturak aurkeztu beharko ditu kontratuaren klausula espezifikoen 19.5. klausulan adierazitako erregistroan. Kontratistak ez badu betetzen SPRIren erregistroan aurkezteko duen hogeita hamar (30) eguneko epea, interesak ez dira sortuko faktura dagokion erregistroan aurkeztu zenetik hogeita hamar (30) egun igaro arte; betiere, botere adjudikatzaileak ez badu onartu eta, hala badagokio, ez badu dagokion zenbatekoa ordaindu.

34.- KONTRATUAREN ALDAKETA.

34.1.- Baldintzak.

Kontratua perfekzionatu ondoren, kontratazio-organoak kontratuaren baldintza espezifikoen 16. klausulan eta SPKLren 204. eta 205. artikuluetan aurreikusitako kasuetan soilik aldatu dezake.

Interes publikoko arrazoiak dira, besteak beste, dagokion aurrekontu-ekitaldian zehar aurrekontuaren egonkortasuna lortzeko xedea dutenak.

34.2.- Prozedura.

34.2.1.- Aldaketa adosteko prozeduraren barruan jarduketa hauek egin behar dira nolanahi ere:

a) Traktu bakarreko kontratuak eta segidako traktuko kontratuak, kontratuaren xedea osatzen duten unitate-kopuru zehatzarekin:

1) Aldaketa eskatzeko interes publikoko arrazoiak, aldaketaren irismen kualitatibo eta kuantitatiboa, baldintzak eta konkurrentzia horren egiaztapen objektiboa jasotzen dituen kontratuaren arduradunaren txostena.

2) Prozeduraren hasieran adostutako kontratazio-organoaren ebazpena.

3) Audientzia kontratistari bost (5) eguneko epean.

4) Audientzia proiektua edo zehaztapen teknikoak idatzi dituenari, baldin eta kontratazio-organoaz kanpoko hirugarren batek prestatu baditu hiru (3) egun balioduneko epean.

5) Txosten juridikoa.

6) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.

7) Aldaketaren iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean, kontratistaren helegiteekin eta, hala badagokio, onartu aurretik bildutako txosten guztiekin.

8) Aldaketaren iragarkia argitaratzea EBAOn, kontratua erregulazio harmonizatuaren mende baldin badago (zerbitzua SPKLren IV. eranskinean jasotako bat izan ezean) eta aldaketa SPKLren 205.2. artikuluko a) eta b) hizkietan jasotako kasuren bati baldin badagokio.

b) Segidako traktuko kontratuak unitate-prezio bakoitzeko, kontratua sinatzean ez bada zehatz finkatu prestazioaren unitateen kopuru osoa:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, hasieran estimatutakoak baino behar erreal handiagoak daudela justifikatzeko eta bere irismen ekonomikoa zehazteko.

2) Prozeduraren hasieran adostutako kontratazio-organoaren ebazpena.

3) Audientzia kontratistari bost (5) eguneko epean.

4) Txosten juridikoa.

5) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.

6) Aldaketaren iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean, kontratistaren helegiteekin eta, hala badagokio, onartu aurretik bildutako txosten guztiekin.

34.2.2.- Jarraian definitutako kasuetan, gainera, jarduketa hauek egin behar dira:

1) Kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea aldatzen bada, kontratistak bermea berregokitu beharko du hamabost (15) egun balioduneko epean, ebazpena jakinarazten den egunetik hasita.

2) Aldaketa ez bada AKPPn aurreikusten, Batzorde Juridiko Aholkulariaren txostena igorri behar da kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea 6.000.000 eurokoa edo altuagoa baldin bada eta aldaketa % 20tik gorakoa baldin bada. Hainbat aldaketa adosten badira, ehuneko aldakuntza kalkulatzeko guztiak hartuko dira kontuan.

34.2.3.- Nolanahi ere, aldaketa SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da eta SPKLren 63. eta 207. artikuluen arabera argitaratuko da.

34.3.- Ondorioak.

Klausula honetan xedatutakoaren arabera adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

35.- AZPIKONTRATAZIOA.

Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontratazioak egitea onartzen bada, kontratistak prestazioaren exekuzio partziala azpikontrata dezake, aipatutako klausulan ezarritako mugen barruan eta klausula horretan xedatutakoaren arabera.

Kontratistak hirugarrengoekin kontratatzen badu kontratua partzialki egitea, kontratuaren exekuzioaren erantzukizun osoa hartuko du bere gain botere adjudikatzailearen plegu hau eta kontratuaren terminoak zorrotz betez, tartean arlo sozial edo laboraleko betebeharrak betetzea.

35.1.- Kontratuaren arduradunari jakinaraztea.

a) Kontratistak EKABren II. zatiko D atala baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazita dagoen moduan bete badu lizitazio-fasean eta azpikontratazioa bertan adierazitako baldintzetan egin nahi badu: **V ERANSKINEAN** ageri den adierazpena igorri beharko dio kontratuaren arduradunari, behar bezala beteta eta sinatuta, gutxienez, azpikontratista lanak exekutatzen hasi baino bost (5) egun baliodun lehenago.

b) Kontratistak EKABren II. zatiko D atala baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazita dagoen moduan bete badu lizitazio-fasean, baina azpikontratazioa EKABn jasota ez dauden baldintzetan egin nahi badu edo ez baditu aipatutako zatiak bete: **V ERANSKINEAN** ageri den formularioa igorri beharko dio kontratuaren arduradunari, behar bezala beteta eta sinatuta, gutxienez, azpikontratista lanak exekutatzen hasi baino hamabost (15) egun baliodun lehenago.

35.2.- Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Kontratistak azpikontratistarekin edo hornitzailearekin adostutako ordainketaren baldintzak betetzen direla justifikatu beharko du, eta SPKLren 216. artikuluak ezarritako mugak errespetatu beharko ditu, baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatutakoaren arabera. Gainera, azpikontratisten kasuan, baldintza orokorren 33.1.1 klausularen d) hizkian xedatutakoa bete beharko dute.

36.- kontratua lagatzea eta ABEE-ko kideak aldatzea.

36.1.- KONTRATUA LAGATZEA.

36.1.1.- Kasuak.

SPKLren 98. artikuluan jasotzen den kontratistaren ondorengotza-kasuak eta SKLren 69.9 artikuluaren ABEEn konposizioaren balizko aldaketak albo batera utzi gabe, kontratua kasu hauetan laga ahal izango da:

1. Kontratista kaudimengabezia-egoeran dagoenean, Konkurtso Legearen testu bategina onartzen duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.2 artikuluarekin bat etorriz, eta oraindik konkurtso-aitorpena eskatu ez duenean, baldin eta beste edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo ez bada.

2. Kontratista konkurtsoan sartzen denean, baita likidazio-fasea zabaldu denean edo konkurtso-adierazpena egiteko epaitegi eskudunari jakinarazi zaionean eta hark birfinantzaketa-akordioa lortzeko negoziazioak hasi dituenean, edo hitzarmenaren aurretiazko proposamen baterako atxikipenak lortzeko, konkurtso-legean aurreikusitako terminoetan.

3. Kontratista pertsona fisiko bat baldin bada eta kontratua amaitu aurretik erretiratzeko nahia adierazi baldin badu.

36.1.2.- Prozedura.

1. Kontratistak idatzi bat igorriko dio kontratuaren arduradunari lagatzeko baimena eskatuz. Eskaera horri dokumentazio hau gehitu behar zaio:

i. Kontratua lagatzeko aukera ematen duen egoera egiaztatzeko dokumentazioa.
ii. Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluaren c) hizkian jasotako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa.

2. Prozedurarekin hastea adosteko kontratazio-organoaren ebazpena.

3. Kontratuaren arduradunak igorritako txostena, kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez exekutatu izanaren eskakizuna bete behar duen ala ez adieraziz, eta, hala bada, baldintza hori betetzen den adieraziz. Halaber, SPKLren 214. artikuluko 1. ataleko bigarren paragrafoan jasotako mugak errespetatzen direla adierazi beharko du.
4. Txosten juridikoa.
5. Kontratistak lagapena formalizatzeko eskritura publikoaren zirriborroa aurkeztea.
6. Lagatzea baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistaren jakinarazpena.
7. Kontratazio-organoaren ebazpenaren argitalpena, kontratatzailearen profilean lagatzea baimentzeko.
8. Lagatzea eskritura publiko bidez formalizatzea.
9. Lagapen-hartzaileak bermea jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuli edo ezeztatuko lagapen-hartzailearena formalki eratu arte.

36.1.3.- Baldintzak.

36.1.3.1.- Nolanahi ere, kontratazio-organoak lagatzea baimendu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

1. SPKLren 214. artikuluaren 2. atalean jasotako baldintzak betetzea.
2. Lagatzailearen (kontratista) ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez daitezela izan kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria.
3. Lagatzearen ondorioz, merkatuaren konpetentzia ez dadila mugatu.

36.1.3.2.- Ez da baimenduko kontratua lagatzea horrek nabarmen aldatzen baditu kontratistaren ezaugarriak eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua badira.

36.1.3.3.- Kontratistaren (lagatzailea) eta lagapen-hartzailearen arteko lagatzea eskritura publiko bidez egingo da.

36.1.3.4.- Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuli edo ezeztatuko lagapen-hartzailearena formalki eratu arte.

36.2.- ABEE-KO KIDEAK ALDATZEA.

36.2.1.- ABEEren osaera aldatuz gero kide kopurua handitzen bada, txikitzen bada edo kide bat edo batzuk beste batzuekin ordezkatzen badira, jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak idatzi bat igorriko dio kontratuaren arduradunari aldatzeko baimena eskatuz. Eskaera horri dokumentazio hau gehitu beharko dio:
   i. ABEEren osaera aldatu ahal izateko baldintzen justifikazioa.
   ii. Osaera berriarekin, ABEEk eskatutako kaudimenaren edo sailkapenaren baldintzak betetzen dituela eta kide guztiek jarduteko erabateko gaitasuna dutela eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez dutela egiaztatzen duen dokumentazioa.
2. Prozedurarekin hastea adosteko kontratazio-organoaren ebazpena.
3. Kontratuaren arduradunak igorritako txostena, kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez exekutatu dela adierazten duena.
4. Txosten juridikoa.
5. Osaera berria izango duen ABEEa formalizatzeko eskritura publikoaren zirriborroa, kontratistaren partetik.
6. ABEEren osaera aldatzea baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena eta ABEE kontratistari egindako jakinarazpena.
7. Kontratazio-organoaren ebazpenaren argitalpena, kontratatzailearen profilean ABEEren osaera aldatzea baimentzeko.
8. ABEE eskritura publiko bidez formalizatzea.
9. ABEEak berme berria jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. ABEEk aurretik emandako bermea ez da itzuli edo ezeztatuko berria formalki eratzen den arte.

36.2.2.- ABEE osatzen duen kide baten jarduera-adarraren fusio-, zatiketa- edo transmisio-operazioen ondorioz sozietate hartzailea, fusioaren ondorioz sortzen dena, zatiketaren onuraduna edo jarduera-adarra bere gain hartzen duena ez bada ABEEko kidea, baldintza orokorren 35.2.1 klausulan adierazitako izapide berberak egingo dira, kontratuaren exekuzioaren zenbatekoaren % 20ari dagokiona izan ezik.

36.2.3.- ABEEren kide bat edo batzuk konkurtsoan sartzen badira, nahiz eta lizitazio-fasea zabalik egon, SPKLren 69.9 artikuluaren c) hizkian eta SPKLren 212.5 artikuluan xedatutakoa beteko da, kontratua exekutatzeko behar adina berme gehigarriren prestazioari dagokionez. Kasu honetan, jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak idatzi bat igorriko dio kontratuaren arduradunari, ABEEren osagarri baten edo batzuen konkurtso-egoera egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera, eta eskaera hauetakoren bat egingo du:
   i. Geratzen diren kideekin kontratua exekutatzen jarraitzea. Kasu horretan, ABEEren osaketa berriak kaudimen-baldintzak edo eskatutako sailkapena betetzen dituela justifikatzeko dokumentazioa erantsi beharko da.
   ii. ABEEren hasierako osagarriekin jarraitzea kontratua exekutatzen, konkurtsoan daudenekin barne.
2. Baldintza orokorren 37.2.1 klausulako 2 eta 9 puntuen artean dauden izapideak egitea (3. puntua izan ezik). Eta, kontratazio-organoak ebazten badu ABEEk kontratua exekutatzen jarraituko duela bere kide guztiekin, konkurtsoan daudenekin barne, ABEE kontratistak kontratua exekutatzeko kontratazio-organoak bere ebazpenean adierazi dituen beharrezko berme gehigarri guztiak eskaini beharko ditu.

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA.

37.- BETETZEA: ENTREGATZEA, HARTZEA ETA LIKIDATZEA.

37.1.- Entregatzea eta ondo bete dela egiaztatzea.

Kontratuaren xedea osatzen duten prestazioak PTPPn ezarritako zehaztapenen eta baldintza orokorren 8. klausulan adierazitako epeen arabera egingo dira.

PTPPn beste zerbait aurreikusi ezean, hau izango da entrega-data:

- Traktu bakarreko kontratuetan: kontratistak prestazio guztiak kontratuaren arduradunari entregatzen dizkion eguna, PTPPn zehaztutako modu eta formatuan.
- Segidako traktuko kontratuetan: kontratuaren exekuzio-epe osoa amaitzen den eguna.

Entregatzen den egunetik hasi eta hamabost (15) egun balioduneko epean gehienez ere, kontratuaren arduradunak beharrezko egiaztapenak egingo ditu adostutako baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko eta egiaztapen-txosten bat igorriko du noranzko hauetakoren batean:

a) Bete direla ondorioztatzen badu: kontratua jasotzea eta horretarako data proposatuko ditu —kontratuaren klausula espezifikoen 15.2 klausulan adierazitako epearen barruan— eta kontratistari igorriko dio txostena.

b) Ez direla bete ondorioztatzen badu: hautemandako ez betetzeak eta/edo akatsak identifikatuko ditu eta horiek zuzentzeko jarraibideak zehaztuko ditu. Kontratistari igorriko dio txostena eta zuzenketa egiteko epea zehazteaz gain, jakinaraziko dio txostenean dauden ondorioei erreklamazioa jartzeko aukera dagoela bost (5) egun balioduneko epean.

Kontratistak ez badu erreklamaziorik jartzen adierazitako epean, aintzat hartuko da ados dagoela jarraibideekin eta hautemandako akatsak zuzendu behar dituela.

Kontratistak erreklamazioa jartzen badu adierazitako epearen barruan, egiaztapen-txostena eta erreklamazio-txostena kontratazio-organora igorriko dira, eta hark hamabost (15) egun balioduneko epean ebatziko du.

37.2.- Akatsak zuzentzea.

37.2.1.- Zuzentzeko epea amaitu ondoren, kontratuaren arduradunak dagozkion egiaztapenak egingo ditu, emandako jarraibideak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko, eta, gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean, bigarren egiaztapen-txostena igorriko du:

a) Behar bezala bete direla ondorioztatzen badu: baldintza orokorren 37.1 klausulako a) atalean adierazitako jarduketak egingo ditu.

b) Ez direla bete ondorioztatzen badu: hautemandako ez betetzeak eta/edo akatsak identifikatuko ditu eta egiaztapen-txostena igorriko dio kontratistari eta kontratazio-organoari, zigorrak ezartzeko proposamenarekin batera. Hala badagokio, jarduketa hauetakoren bati erreparatuko dio:

1) Kontratua suntsiarazteko prozedurari ekitea, bermea konfiskatuz eta konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen dutenen kasuan, kontratistak botere adjudikatzaileari eragindako kalte-ordainak ordaintzeko betebeharra betetzea.

2) Zuzentzeko epe berri bat esleitzea eta kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 25era bitarteko zigorra ezartzea.

Azpikontratistak ez badu zuzenketarik egiten emandako bigarren epean, kontratua suntsiarazteko prozedurari ekingo zaio, bermea konfiskatuz eta konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen dutenen kasuan, kontratistak botere adjudikatzaileari eragindako kalte-ordainak ordaintzeko betebeharra betetzea.

37.2.2.- SPKLren 315. artikuluak arautzen du akatsen zuzenketa eta obra-proiektuak egiteko kontratuen gabezien zuzenketa.

37.3.- Hartzea.

Nolanahi ere, hartu arte, kontratistak behar bezala bete beharko ditu adostutako baldintzak, eta kontratuaren arduradunak aldeko egiaztapen-txostena igorri izana edo zerbitzuen ziurtagiri partzialak onartu izana ez da izango salbuesteko arrazoia eta ez du inolako eskubiderik emango.

Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu adostutako baldintzak behar bezala bete direla, kontratua hartuko da.

37.4.- Likidatzea.

Kontratuak hala eskatzen badu eta/edo kontratuaren klausula espezifikoetan hala jaso bada, SPKLren 309.1. artikuluaren bigarren paragrafoaren arabera, kontratazio-organoak dagokion likidazioa adostuko du harrera- edo adostasun-akta jaso eta hogeita hamar (30) egun balioduneko epean, eta kontratistari jakinarazi eta, hala badagokio, ordaindu egingo zaio, betiere, faktura ez bada harreraren ondoren aurkezten.

Kontratistak harreraren ondoren aurkezten badu faktura, hogeita hamar (30) eguneko epea faktura kontratuaren klausula espezifikoen 19.5 klausulan adierazitako erregistroan entregatzen denetik hasiko da zenbatzen.

Likidazioaren saldoa ordaintzeko garaian atzerapenak baldin badaude, kontratistak eskubidea izango du atzerapenaren interes guztiak eta kobrantza-kostuen indemnizazioa jasotzeko, merkataritzako harremanetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako terminoetan.

38.- BERME EPEA ETA BERMEAREN ITZULKETA.

38.1.- Kontratistaren betekizunak.

Kontratuaren klausula espezifikoen 15.3 klausulan ezarritako bermearen epea kontratua jaso eta hurrengo egunean hasiko da eta epe horren barruan, kontratistak bere kontura zuzendu beharko ditu egindako lanek dituzten akatsak edo kalteak. Akats horiek idatziz egiaztatu eta komunikatu beharko dira aipatutako epearen barruan.

Akatsak edo kalteak dagokion moduan eta epean zuzentzea erreklamatuz gero eta kontratistak ez baditu zuzentzen, botere adjudikatzaileak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 100. artikuluan ezarritako behartutako exekuziorako bitartekoak erabili ahal izango ditu.

Berme-aldia igarotzean botere adjudikatzaileak ez badu zuzenketarik erreklamatu dagokion modu eta epean, kontratista erantzukizunetik salbuetsiko da, egindako prestazioarengatik, eta obra-proiektuak egiteko kontratuentzako SPKLren 314 eta 315 artikuluetan ezarritakoa ere kontuan hartuko da.

38.2.- Bermea itzultzea.

38.2.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 15.3 klausularen kasuan ez bada berme-aldirik ezartzen, kontratua likidatzeko akordioaren barruan sartuko da bermea itzultzeko edo ezeztatzeko agindua.

38.2.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 15.3 klausulan berme-aldia ezartzen bada, jarduketa hauek egingo dira epe hori igarotakoan:

a) Berme-aldian zehar ez bada erreklamaziorik formulatu dagokion moduan eta epean, edo formulatu bada ere, horiek zuzendu badira: kontratazio-organoak ebazpena emango du eta bermea itzultzea edo ezeztatzea adostuko du.
Gehienez, ebazpena bi (2) hilabeteko epean hartu eta jakinaraziko zaio kontratistari, bermearen epea amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

b) Bermearen epean erreklamazioak egin badira dagozkien modu eta epean, eta kontratistak ez baditu zuzendu: kontratuaren arduradunak dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari gabeziak zuzentzeko. Horretarako, epe bat emango dio eta epe horretan zehar SPKLren 311. artikuluaren 2. atalean deskribatutako terminoetan egindako lanen eta prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren arduraduna izaten jarraituko du eta ez du eskubiderik izango bermearen epe hori luzatzeagatik kopururen bat jasotzeko.
Kontratuaren arduradunak emandako argibideak kontratistak betetzen ez baditu horretarako dagoen epean, bermea konfiskatu egingo da.

38.2.3.- Kontratuaren klausula espezifikoen 8.5 klausulan onartzen bada bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezeztatzea, baldintza orokorrei buruzko 38.1 eta 38.2 klausuletan ezarritakoaren arabera jardungo da. Bermearentzako epea ezarri bada, harrera partzialaren hurrengo egunean hasiko da.

38.2.4.- Kontratua amaitzen denetik urte batera (1) eta bermearen epea amaitutakoan, ez bada harrera formalki eta likidaziorik gauzatu kontratistari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik, bermeak itzuli edo ezeztatuko dira, SPKLren 110. artikuluak aipatzen dituen erantzukizunak esleitu ondoren. Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000,00 eurotik beherakoa bada eta kontratista enpresa txiki edo ertain bat bada (SPKLren 111.5 artikuluko erreferentzien arabera definituz), urtebeteko epea murriztu eta sei (6) hilabetekoa izango da.

39.- SUNTSIARAZTEA.

SPKLren 211 eta 313 artikuluetan, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak zituzten zerbitzuen kontratuen 294. artikuluaren c), d) eta f) hizkietan eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 17. klausulan ezarritakoez gain, hauek dira kontratuak suntsiarazteko arrazoiak:

a) Botere adjudikatzailearen zuzendaritza- eta ikuskapen-gaitasunak eragoztea, SPKLren 190. artikuluaren bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera.

b) Kontratistak duen izaera konfidentziala bermatzeko betebeharra ez betetzea.

VII.- GORABEHERAK ETA BERRIKUSPENA

40.- GORABEHERAK.

40.1.-Kontratazio-organoaren eskumenak.

Interpretazioari, betetzearen gaineko zalantzen ebazpenari, aldaketari, kontratua gauzatzeagatik kontratistari egotz dakiokeen erantzukizunpeko adierazpenari, exekuzioa bertan behera uzteari eta suntsiarazteari eta horrek administrazioko kontratuetan izan ditzakeen ondorioei dagokienez sor daitezkeen auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta bere akordioen bidez amaituko da bide administratiboa. Berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke akordio horien aurka hilabete bateko epean organoaren beraren aurrean edo bi hilabeteko epean administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren kasuan; hilabeteak jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

40.2.- Prozedura.

Plegu honetan eta sektore publikoko kontratuen araudian ezarritako kasu espezifikoetan izan ezik, kontratuaren exekuzioan eta suntsiaraztean botere adjudikatzailearen eta kontratistaren artean sortzen diren jazoerak kontraesaneko espediente bidez tramitatutako dira eta jarduketa hauek jaso beharko ditu derrigorrez:

a) Botere adjudikatzailearen proposamena edo kontratistaren eskaera.

b) Audientzia kontratistari bost (5) egun balioduneko epean.

c) Kontratuaren arduradunaren txostena.

d) Hala badagokio, aholkularitza juridikoaren txostena.

e) Kontratazio-organoaren ebazpen arrazoitua eta kontratistari egindako jakinarazpena.

Interes publikoko arrazoiek justifikatu edo izaeren jazoerek hala xedatu ezean, prozedura hori tramitatzean kontratua geldiarazi egingo da.

41.- EKINTZEN BERRIKUSPEN ERREGIMENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak du kontratazioari buruzko errekurtsoak ebazteko eskumena, SPKLren 44.1 artikuluan jasotako kontratuen harira SPKLren 44.2 artikuluan aurreikusten diren egintzen aurrean. Orobat, dagozkion behin-behineko neurriei buruz erabakitzeko eskumena du.

SPKLren 44.1 artikuluan jasota ez dauden kontratuei dagokienez agindutako ekintzen aurka Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean (112, 121 eta 123 artikuluak) eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako errekurtsoak jar daitezke.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA

LAN KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUAK

Zerbitzuen kontratua (*kontratuaren xedea adierazi*)

Hitzarmen kolektiboa	Kategoria profesionala	Kontratu mota	Jardunaldia	Antzinatasunaren data	Kontratuaren iraungitze-data	Urteko soldata gordina	Indarrean dauden hitzarmenak

.....(e)n, 20....(e)ko .....ren .....(e)(a)n

Sinatuta:

II.1 ERANSKINA

EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)

AURKIBIDEA

Formulario honek zati eta atal hauek ditu:

I. zatia Kontratazio-prozedurari eta botere edo erakunde adjudikatzaileari buruzko prozedura.

II. zatia. Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.

- A atala: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.
- B atala: Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa.
- C atala: Beste erakunde batzuen gaitasunari jarritako errekurtsoaren informazioa.
- D atala: Operadore ekonomikoak gaitasunerako oinarri hartu ez dituen azpikontratistei buruzko informazioa.

III. zatia. Alde batera uzteko arrazoiak:

- A atala: Kartzela-zigorrekin lotutako arrazoiak.
- B atala: Zergak ordaintzearekin edo Gizarte Segurantzako kotizazioekin lotutako arrazoiak.
- C atala: Kaudimengabeziarekin, interes-gatazkekin edo profesionaltasun-faltarekin lotutako arrazoiak.
- D atala: Botere adjudikatzailearen edo erakunde adjudikatzailearen Estatuko legedi nazionalean aurreikusita egon daitezkeen alde batera uzteko beste arrazoi batzuk.

IV. zatia Hautaketa-irizpideak:

- Atala α: Hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen orokorra.
- A atala: Egokitasuna
- B atala: Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.
- C atala: Gaitasun tekniko eta profesionala.
- D atala: Kalitatea bermatzeko sistemak eta ingurumeneko kudeaketaren arauak.

V. zatia Kualifikatutako hautagaien kopurua murriztea.

VI. zatia Amaierako adierazpenak.

I. zatia: Kontratazio-prozedurari eta botere adjudikatzaileari buruzko informazioa.

KONTRATAZIO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA

I. zatian eskatzen den informazioa automatikoki lortuko da EKAB zerbitzua erabiliz, helbide honetan eskuragarri dagoen EKAB sortzeko eta betetzeko:-https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

Kontratatzailearen nortasuna[1]	**Erantzuna**
Izena:	[ ]
Zer kontratazio da?	**Erantzuna**
Kontratazioaren izenburua edo deskribapen laburra[2]:	[ ]
Botere adjudikatzaileak edo erakunde esleipendunak esleitutako espedientearen erreferentzia-zenbakia (hala badagokio)[3]:	[ ]

II. zatia: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa

A: OPERADORE EKONOMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Identifikazioa	**Erantzuna**
Izena:	[ ]
BEZ zenbakia, hala badagokio[4]**:** BEZ zenbakia ez badu, hala badagokio, beste identifikazio-zenbaki nazional bat adierazi beharko du.	[ ] [ ]
Posta-helbidea:	[…]
Harremanetarako pertsona edo pertsonak[5]: Telefonoa: Posta elektronikoa: Interneteko helbidea (webgunearen helbidea, hala badagokio):	[…] […] […] […]
Informazio orokorra	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoa mikroenpresa bat, enpresa txiki bat ala enpresa ertain bat da?[6]	☐ Bai ☐ Ez

[1] EBAOren lizitazioaren iragarkiaren I.1 puntuko I. atalean ageri den informazioa erreproduzitu beharko da. Kontratazio bateratua eginez gero, kontratatzaile guztien izenak adierazi beharko dira.

[2] Ikusi lizitazioaren iragarkiaren II. 1.1 eta II 1.4 puntuak.

[3] Ikusi EBAOren lizitazioaren iragarkiaren II.1.1 puntua.

[4] Herritar edo operadore ekonomiko espainiarrek beren IFZ adierazi beharko dute; Espainian bizi diren herritar ez espainiarrek AIZ; EBko estatu kideren bateko operadore ekonomikoek IFZ-BEZa edo komunitate barruko IFZ, edo hala badagokio, DUNS zenbakia. EBkoa ez den estaturen bateko atzerriko operadore ekonomikoek DUNS zenbakia.

[5] Errepikatu harremanetarako pertsonei buruzko informazioa behar den guztietan.

[6] Ikusi 2003ko maiatzaren 6ko Batzordearen gomendioa, mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainei buruzkoa (2003.05.20ko DO L 124, 36. or.). Datu hori helburu estatistiko soilengatik bakarrik eskatzen da.

Mikroenpresa: 10 enplegatu baino gutxiago dituen eta urteko negozioen bolumena edo urteko balantze osoa 2 milioi eurotik beherakoa duen operadore ekonomikoa.

Enpresa txikia: 50 enplegatu baino gutxiago dituen eta urteko negozioen bolumena edo urteko balantze osoa 10 milioi eurotik beherakoa duen operadore ekonomikoa.

Enpresa ertaina: mikroenpresa eta enpresa txikia ez den operadore ekonomikoa. 250 enplegatutik gora ditu eta bere negozioen urteko bolumena ez da 50 milioi eurotik gorakoa edo urteko balantze osoa ez da 43 milioi eurotik gorakoa.

Soilik erreserbatutako kontratazioaren kasuan[7]: operadore ekonomikoa lantegi babestua edo enpresa soziala al da, edo aurreikusten al du kontratua enplegu babestuko programen esparruan gauzatuko dela? **Erantzuna baiezkoa baldin bada,** Zein da desgaitasuna duten edo beharren bat duten langileen ehunekoa? Beharrezkoa bada, zehaztu zer kategoriatakoak diren desgaitasun edo beharren bat duten pertsona horiek.	☐ Bai ☐ Ez […] […]
Zure kasuan, operadore ekonomikoa operadore ekonomikoen zerrenda ofizial batean dago inskribatuta edo ziurtagiri baliokidea du (esaterako, (aurre)sailkapenaren sistema nazional baten esparruan[8])?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Ez dagokio
Baiezkoa bada: **Erantzun atal honetako, B ataleko eta, hala badagokio, zati honetako C ataleko galderak eta, hala badagokio, bete eta sinatu V. zatia eta VI. zatia.** Adierazi zerrendaren izena edo ziurtagiria eta dagokion inskripzio- edo ziurtagiri-zenbakia: Inskripzio-ziurtagiria edo ziurtagiria elektronikoki baldin badaude eskuragarri, hauek adierazi behar dira: Inskripzioak edo ziurtagiriak oinarri dituen erreferentziak, eta, hala badagokio, zerrenda ofizialean lortutako sailkapena adierazi[9]: Inskripzioak edo ziurtagiriak eskatutako hautaketa-irizpide guztiak hartzen ditu barne? **Ezezko kasuan:** **Gainera, IV. zatiko A, B, C edo D ataletan falta den informazioa eman beharko da, hala badagokio.** ***SOILIK dagokion iragarkiak edo kontratazio-pleguek hala eskatzen dutenean:*** Operadore ekonomikoak Gizarte Segurantzako kotizazioen eta zergen ordainketari buruzko ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango du, edo botere esleitzaileari edo erakunde esleitzaileari zuzenean hori lortzeko informazioa eman ahal izango dio, doan kontsulta daitekeen edozein estatu kidetako datu-base nazional baten bidez? Dagokion dokumentazioa eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honako hau adierazi beharko da:	[…] (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […] […] ☐ Bai ☐ Ez ☐ Bai ☐ Ez (Webgunearen helbidea, autoritatea eta organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
Parte hartzeko modua	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoa beste operadore batzuekin batera ari da parte hartzen kontratazio-prozeduran[10]?	☐ Bai ☐ Ez
Baiezkoa bada, ziurtatu gainerako interesdunek EKAB formulario bereizia dutela[11]	
Baiezkoa bada:	a): […]

[7] Ikusi kontratuaren klausula espezifikoei buruzko 20.7 klausula eta EBAOren lizitazioaren iragarpenaren III.1.5 puntua.
[8] Ikusi baldintza orokorrei buruzko 11.5. klausula.
[9] Hala badagokio, erreferentziak eta sailkapena ziurtagirian ageri dira
[10] Zehazki, talde, partzuergo, parte-hartze enpresa edo antzeko batean (ABEE).
[11] Bi edo hainbat operadore ekonomiko enpresa-elkarte batean edo ABEE bat formalki eratzeko konpromisoaren pean aurkezten badira eta esleipendunak suertatzen badira, EKAB formularioa aurkeztu beharko dute operadore ekonomiko bakoitzak behar bezala beteta eta sinatuta, eta II, III, IV eta V zatiak agertu beharko dira. Hainbat operadore ekonomikok eskaintza bateratua aurkezten badute formalki ABEE bat eratzeko konpromisoarekin, formalki ABEE bat eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, administrazio-klausula partikularren pleguari dagokion eranskinean ageri den ereduaren arabera.

a) Adierazi operadore ekonomikoak taldearen barruan duen funtzioa (arduradun nagusia, zeregin espezifikoen arduraduna, etab.): b) Adierazi kontratazio-prozeduran elkarrekin parte hartzen duten gainerako operadore ekonomikoak: c) Hala badagokio, talde parte-hartzailearen izena:	b): […] c): […]
Loteak	**Erantzuna**
Hala badagokio, adierazi operadore ekonomikoak zer loterentzat aurkeztu nahi duen eskaintza:	[]

B: OPERADORE EKONOMIKOAREN ORDEZKARIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Hala badagokio, adierazi kontratazio-prozedura honetarako operadore ekonomikoa ordezkatzeko gaitutako pertsona edo pertsonak.

C:

Ordezkaritza, hala badagokio	**Erantzuna**
Izen-abizenak: Jaiotze-data eta -lekuarekin batera, hala badagokio:	[…]; […]
Kargua/jarduteko gaitasuna:	[…]
Posta-helbidea:	[…]
Telefonoa:	[…]
Posta elektronikoa:	[…]
Beharrezkoa bada, ordezkaritzari buruzko informazio xehea (moduak, irismena, helburua...)	[…]

BESTE ERAKUNDE BATZUEN GAITASUNARI JARRITAKO ERREKURTSOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Baliabidea	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoa beste erakunde batzuen jarduteko gaitasunean[12] oinarritzen da IV. zatian ageri diren hautaketa-irizpideak betetzeko?	☐ Bai ☐ Ez

Baiezkoa bada, EKAB formulario bana entregatu beharko du erakunde bakoitzak, eta zati honetako A eta B ataletan eta III. zatian eskatutako informazioa jaso beharko du. Formularioa behar bezala bete eta sinatu beharko dute erakunde horiek.

Halaber, operadore ekonomikoaren antolakuntzan zuzenean integratuta ez dauden langile edo erakunde teknikoak ere hemen gehituko dira, bereziki kalitatearen kontrolaz arduratzen diren pertsonak.

Operadore ekonomikoaren oinarrian dauden gaitasun espezifikoei dagokienez beharrezkoa den aldi guztietan, IV. zatian eskatzen den informazioa emango du erakunde bakoitzak, dagokionaren arabera[13].

D: OPERADORE EKONOMIKOAK GAITASUNERAKO OINARRI HARTU EZ DITUEN AZPIKONTRATISTEI BURUZKO INFORMAZIOA

Atal hau bete beharko da soilik kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulan berariaz eskatzen denean.

Azpikontratazioa	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoak asmoa du kontratuaren zati bat hirugarrengoei azpikontratatzeko?	☐ Bai ☐ Ez **Hala bada, eta datu horren berri izan heinean**, zerrendatu aurreikusitako azpikontratistak: […][14]

Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulan atal horretan emandako informazioarentzako informazio gehigarri gisa eskatzen bada, zati honetako A eta B ataletan eta III. zatian eskatutako informazioa eman beharko du azpikontratista bakoitzak, edo azpikontratistaren kategoria bakoitzak.

[12] Gaitasuna kaudimen gisa ulertuta.

[13] Esaterako, kalitatearen kontrolaz arduratzen diren organismo teknikoak baldin badira: IV. zatia, C atala, 3. puntua.

[14] Azpikontartistak adierazi kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausularen a) hizkian hala eskatzen bada soilik. Adierazi baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan eskatzen diren datuak.

III. zatia: Alde batera uzteko arrazoiak

A: KARTZELA ZIGORREKIN LOTUTAKO ARRAZOIAK

2014/24/EB zuzentarauaren 57. artikuluko 1. atalak alde batera uzteko arrazoi hauek ezartzen ditu:
Delituak egiten dituen erakunde batean parte hartzea[15]
Ustelkeria[16].
Iruzurra[17].
Terrorismo-delituak edo jarduera terroristekin lotutako delituak[18].
Kapitalen zuriketa edo terrorismoaren finantzaketa[19].
Haurren lana eta gizakien salerosketarako beste modu batzuk[20].

Zigor-kondenei dagozkien arrazoiak, 2014/24/EB Zuzentarauaren 1. ataleko 57. artikuluan aipatutako arrazoientzat aplikagarriak diren xedapen nazionalen arabera[21].	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoak edo bere administrazio-organoko, zuzendaritzako edo ikuskaritzako **kideren** batek edo operadorean ordezkaritza-, erabaki- edo kontrol-botereak dituen kideren batek **sententzia irmo bidezko kondenaren** bat jaso du goian aipatutako arrazoiengatik gehienez ere aurreko bost urteetan edo oraindik aplikagarria den alde batera uzteko eperen bat ezarri zaio?	☐ Bai ☐ Ez Dagokion dokumentazioa eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honako hau adierazi beharko da: (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […][22]
Baiezko kasuan,, adierazi[23]: a) Kondenaren data, 1etik 6ra bitarteko zein puntu den eta horretarako arrazoiak zehaztuz: b) Kondenatutako pertsonaren identifikazioa []: **c) Kondenan zuzenean ezartzen bada:**	a) Data: [], puntuak: [], arrazoia edo arrazoiak: [] b) [ ] c) Alde batera uzteko aldiaren iraupena […] eta puntuak [ ];

[15] Antolatutako gaizkileen aurkako borrokari buruzko 2008ko urriaren 24ko Kontseiluaren 2008/841/JAI erabakiaren 2. artikuluan definitzen den moduan (2008.11.11ko DO L 300, 42. or).

[16] Europako Komunitateetako edo Europar Batasuneko herrialdeetako funtzionarioek egindako ustelkeria-ekintzen aurkako hitzarmenaren 3. artikuluan (1997.06.25eko DO C 195, 1. or.) eta sektore pribatuan ustelkeriaren aurka egiteko 2003ko uztailaren 22ko Kontseiluaren 2003/568/JAI erabakiaren 1. ataleko 2. artikuluan definitzen den moduan (2003.07.31ko DO L 192, 54. orrialdea). Alde batera uzteko arrazoi horrek ere barne hartzen du botere adjudikatzailearen (erakunde adjudikatzailea) edo operadore ekonomikoaren legedi nazionalean definitzen den ustelkeria.

[17] Europako Komunitateen finantza-interesa babesteari buruzko hitzarmenaren 1. artikuluak ezartzen duenari dagokionez (1995.11.27ko DO C 316, 48. or.).

[18] Terrorismoaren aurkako borrokari buruzko 2002ko ekainaren 13ko Kontseiluaren 2002/475/JAI erabakian definitzen den moduan (2002.06.22ko DO L 164, 3. or). Alde batera uzteko arrazoi horrek bere barne hartzen ditu halaber delitu bat egitera bultzatzea edo konplizitate izatea, edo delitu hori egiteko ahalegina egitea, aipatutako esparru-erabakiaren 4. atalean aurreikusten den moduan.

[19] Finantza-sistema kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko erabiltzea saihesteko 2005eko urriaren 26ko Europako parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/60/CE Zuzentarauaren 1. artikuluan definitzen den moduan (2005.11.25eko DO L 309, 15. or.).

[20] Gizakien salerosketaren aurkako borrokari eta prebentzioari, eta biktimen babesari buruzko 2011ko apirilaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36/UE Zuzentarauaren 2. artikuluan definitzen den moduan. Zuzentarau horrek Kontseiluaren 2002/629/JAI erabakia ordezkatzen du (2011.04.15eko DO L 101, 1. or.).

[21] Horri dagokionez, SPKLren 71. artikuluaren 1. atalean hauek ageri dira kontratatzeko debeku moduan *"Zigorra jaso izana sententzia irmo baten bitartez terrorismo delituengatik, erakunde edo talde kriminal bat eratu izanagatik edo parte izateagatik, legez kanpoko elkarte batekoa izateagatik, alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketagatik, gizakien salerosketagatik, negozio-ustelkeriagatik, influentzi-trafikoagatik, funtzionario-eroskeriagatik, iruzurragatik, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituagatik, langileen eskubideen aurkako delituengatik, prebarikazioagatik, bidegabeko erabiltzeagatik, funtzionarioek debekatuta dituzten negoziazioengatik, kapital-zuriketagatik, lurralde-antolamenduarekin eta hirigintzarekin lotutako delituengatik, ondare historikoaren eta ingurumenaren babesarengatik edo lanbide, ofizio, industria edo merkataritza horretarako inhabilitazioa ezartzen duen zigorragatik. Kontratatzeko debekua legez arduradunak diren pertsona juridikoentzat eta haien administratzaile edo ordezkarientzat izango da, izatezkoak zein eskubidezkoak izan, betiere, beraien kargua edo ordezkaritza indarrean baldin badago atal honetan aipatutako egoera ematen denean eta iraungi arte".*

[22] Errepikatu behar den guztietan.

[23] Errepikatu behar den guztietan.

B:		Dagokion dokumentazioa eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honako hau adierazi beharko da: (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […][24]
	Kondenarik baldin badago, operadore ekonomikoak neurriak hartu ditu bere sinesgarritasuna frogatzeko, nahiz eta alde batera uzteko arrazoiak izan (autozuzenketa)[25]?	☐ Bai ☐ Ez
	Baiezkoa bada, deskribatu hartutako neurriak[26]:	[…]

ZERGAK ORDAINTZEAREKIN EDO GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOEKIN LOTUTAKO ARRAZOIAK

Zergak ordaintzea edo Gizarte Segurantzako kotizazioak	**Erantzuna**	
Operadore ekonomikoak **zergak ordaintzeko edo gizarte segurantzako kotizazioak egiteko bere betebehar guztiak** bete ditu bai finkatuta dagoen herrialdean, bai botere adjudikatzailearen[27] edo erakunde esleipendunaren estatuan (ez baldin badator bat finkatuta dagoen herrialdearekin)?	☐ Bai ☐ Ez	
Ezezko kasuan,, adierazi:	**Zergak**	**Gizarte Kotizazioak**
a) Dagokion herrialdea edo estatu-kidea: b) Zer zenbateko da? c) Nola ezarri da ez-betetzea? 1) Ebazpen administratibo edo judizial baten bidez: - Ebazpena irmoa eta loteslea al da? - Adierazi kondenaren edo ebazpenaren data. - **Kondena kasuetan, eta betiere kondenan berariaz ezartzen bada,** alde batera uzteko epearen iraupena. 2) Beste bitarteko batzuen bidez. Zehaztu. d) Operadore ekonomikoak bete al ditu bere betebeharrak ordainketaren edo hitzarmen loteslearen bidez, ordaindu behar dituen zergei edo gizarte-segurantzako kotizazioei dagokienez, hala badagokio, sortutako interesak edo ezarritako isunak ere kontuan hartuta?	[…] […] c1) ☐ Bai ☐ Ez - ☐ Bai ☐ Ez - […] - […] c2) […] d) ☐ Bai ☐ Ez **Baiezko kasuan,** zehaztu: […]	[…] […] c1) ☐ Bai ☐ Ez - ☐ Bai ☐ Ez - […] - […] c2) […] d) ☐ Bai ☐ Ez **Baiezko kasuan,** zehaztu: […]
Zergen ordainketari edo kotizazio sozialei buruzko dokumentazioa eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honakoa adierazi beharko da:	(Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza)[28]: […] […] […] […]	

C: KAUDIMENGABEZIAREKIN, INTERES GATAZKEKIN EDO LANGILEEN FALTAREKIN LOTUTAKO ARRAZOIAK[29]

Kaudimengabezia, interes-gatazka edo profesionaltasun-falta guztiarekin lotutako informazioa.	**Erantzuna**
	☐ Bai ☐ Ez

[24] Errepikatu behar den guztietan.
[25] 2014/24/EB Zuzentarauaren 6. zatiko 57. artikuluko xedapen nazionalen arabera.
[26] Azalpenak frogatu beharko du hartutako neurriak egokiak direla, egindako delituen izaera kontuan hartuta (puntuala, errepikakorra, sistematikoa, etab.).
[27] Horri dagokionez, SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko a) hizkiak arrazoi hauek ezartzen ditu kontratatzeko debeku gisa: *"Sententzia irmo baten bidez zigortu izana (...), Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak egiteagatik(...)".* Atal horretako d) hizkiak hauek ezartzen ditu kontratatzeko debeku gisa: *"Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzakoak egunean ez izatea, arau bidez ezarritako terminoetan";* eta atal horretako f) hizkiak: *"zigor administratibo irmo batengatik kontratatzeko debekua izatea, Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta Zerga Orokorrei buruzko 2003ko abenduaren 17ko 58/2003 Legean aurreikusitakoaren arabera".*
[28] Errepikatu behar den guztietan.
[29] Ikusi 2014/24/EB Zuzentarauaren 4. ataleko 57. artikulua. Hala ere, kontuan izan behar da alde batera uzteko arrazoi hauek legedi nazionalaren arabera interpretatu behar direla, kasu zehatz bakoitzean adierazten den moduan.

Zure jakintzaren eta ulermenaren arabera, operadore ekonomikoak **lanaren, arlo sozialaren eta ingurumenaren arloan** dituen betebeharrak urratu ditu[30]?	**Baiezkoa bada**, operadore ekonomikoak neurriak hartu ditu bere sinesgarritasuna frogatzeko, nahiz eta alde batera uzteko arrazoiak izan (autozuzenketa)? ☐ Bai ☐ Ez **Hala bada**, deskribatu hartutako neurriak: […]
Operadore ekonomikoa egoera hauetakoren batean ote dagoen[31]: **Porrota** Kaudimengabezi- edo likidazio-prozedura baten mende egotea Hitzarmena egin du bere hartzekodunekin Legezko xedapenetan eta araudi nazionaletan indarrean dagoen izaera bereko prozedura batetik eratorritako edozein egoera analogotan Likidatzaile edo tribunal bat ari da bere aktiboak administratzen Bere enpresa-jarduerak bertan behera geratu dira **Baiezkoa bada:** Zehaztu: Adierazi operadorea zergatik den kontratua exekutatzeko gai, egoera horietan jarduerarekin jarraitzeko aplikagarriak diren xedapenak eta neurri nazionalak kontuan hartuta[32]. Dagokion dokumentazioa eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honako hau adierazi beharko da:	☐ Bai ☐ Ez - […] - […] (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
Operadore ekonomikoa **arau-hauste profesional larri** baten erruduna da[33]? Baiezko kasuan, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
	Erantzuna baiezkoa bada, eragile ekonomikoak neurri autozuzentzaileak hartu al ditu? ☐ Bai ☐ Ez

[30] Kontratazio honi dagokionez legedi nazionalean, dagokion iragarkian, kontratazioaren pleguetan edo 2014/24/EB Zuzentarauaren 2. ataleko 18. artikuluan xedatuta dagoen moduan.

Horri dagokionez, SPKLren 71. artikuluko 1. atalaren b) hizkiak kontratatzeko debekuen barruan jasotzen du sententzia irmo baten zigorra jaso izana:

a) Arau-hauste oso larria lan-arloan edo arlo sozialean, 2000ko abuztuaren 4ko 5/2000 Errege Dekretuak onartutako Arau Sozialaren arau-hausteei eta zigorrei buruzko Testu Bateginean xedatutakoaren arabera, baita aipatutako testuko 22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste larriaren arabera ere.

b) Arau-hauste oso larria ingurumenaren arloan, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

Eta SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko d) hizkiak hauek jasotzen ditu kontratatzeko debekuen artean: "*(…) 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, enplegatuen % 2k gutxienez desgaitasunen bat izateko betebeharra ez betetzea, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzeko 2013ko azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretuaren 42. artikuluaren arabera, arauek ezartzen duten baldintzetan".*

[31] Ikusi legedi nazionala, dagokion iragarkia edo kontratazioaren pleguak. Horri dagokionez, SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko c) hizkiak debeku hauek ezartzen ditu SPKLTBren 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin kontratatzeko: *"lehiaketa boluntarioaren adierazpena eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu izana, konkurtsoan egotea, deklarazio horretan hitzarmen bat izan ezean edo ordainketak egiteko hitzarmen extrajudizial bat adosteko espedientea hasi ezean, eskuhartze judizialaren mende egotea edo 2003ko uztailaren 9ko 22/2003, Lege Konkurtsalaren arabera desgaitu izana, konkurtsoaren kalifikazioaren sententzian finkatutako inhabilitazioaren aldia amitu aurretik"*.

[32] Ez da beharrezkoa izango informazio hori ematea a) hizkitik f) hizkira bitarte jasotako kasuren batean aurreikusten den operadore ekonomikok bertan behera uzteko ekintza derrigorrezkoa baldin bada legedi nazional aplikagarriaren arabera, eta operadore ekonomikoa kontratua exekutatzeko baldintzetan bada **ez da salbuespenik izango**. SPKLren 71. artikuluko 1. ataleko c) hizkian xedatutakoa beteko da.

[33] Kasu horretan, ikusi definizioak legedi nazionalean, dagokion iragarkian edo kontratazio-pleguetan. Puntu honetan, SPKLren 71. artikuluko 1. atalaren b) hizkian xedatutakoa hartuko da kontuan. Artikulu horrek hau ezartzen du SPKLren 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin kontratatzeko debeku gisa: *"arlo profesionalean arau-hauste larria egiteagatik zigor irmoa jaso izana, (...)".*

	Hala bada, deskribatu hartutako neurriak: […]
Operadore ekonomikoak akordioak egin al ditu beste operadore ekonomiko batzuekin **konpetentzian iruzur egiteko**[34]? **Baiezko kasuan**, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
	Erantzuna baiezkoa bada, eragile ekonomikoak neurri autozuzentzaileak hartu al ditu? ☐ Bai ☐ Ez **Hala bada**, deskribatu hartutako neurriak: […]
Kontratazio-prozeduran parte hartzeagatik interes-gatazkaren bat sortu daitekeela ba al daki operadore ekonomikoak[35]? **Baiezko kasuan**, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
Operadore ekonomikoak edo berarekin lotutako enpresaren batek **aholkularitza** eman dio botere adjudikatzaileari edo erakunde esleipendunari edo **beste nolabait hartu du parte** kontratazio-prozeduraren **prestaketan**[36]? **Baiezko kasuan**, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
Operadore ekonomikoaren aurretiazko kontratu publikoren bat, erakunde adjudikatzaile batekin izandako aurretiazko kontraturen bat edo aurretiazko esleipen-kontraturen bat **deuseztatu** da edo aurreko kontratu horri dagokionez kalte-ordainak edo bestelako zigorrak ezarri dizkiote?[37] **Baiezko kasuan,** zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
	Erantzuna baiezkoa bada, eragile ekonomikoak neurri autozuzentzaileak hartu al ditu? ☐ Bai ☐ Ez

[34] Legedi nazionala, dagokion iragarkian edo kontratazioaren pleguan adierazitakoaren arabera. Puntu honetan, SPKLren 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin kontratatzeko debekua ezartzen duen SPKLren 71. artikuluaren 1. zatiko b) hizkian xedatutakoa beteko da: *"konpetentziari iruzur egitearen arloan (…) arau-hauste larria egiteagatik zigortu izana".*

[35] SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko g) hizkiaren kontratatzeko debekuak hauek dira: *"pertsona fisikoa edo pertsona juridikoaren administratiboetako bat Estatuko Administrazio Orokorraren goi-karguak gauzatzeari buruzko 2015eko martxoaren 30eko 3/2015 Legean edo Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileentzako Bateraezintasunei buruzko 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legean jasotako kasuren batean egotea edo Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko 1985eko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautatutako karguetako bat izatea. Aurreko paragrafoak aipatutako langileek eta goi-karguek parte hartzen duten kapitaleko pertsona juridikoei eragingo die, aipatutako legedian ezarritako terminoetan eta zenbatekoetan, baita horien zerbitzura dauden hautatutako karguei ere. Halaber, bi kasuetan, debekua ezkontideei, bizikidetza-harreman afektiboa eta harreman analogoa dutenei, ondorengoei eta aurrekoei, zein odol edo afinitate bidezko bigarren mailako ahaideei zabalduko zaie, kontratazio-organoaren titularrarekin edo kontratatzeko ahalmena eskudundu zaien organoetako titularrekin edo lehenengoa ordezkatzen dutenekin interes-gatazka sortzen denean"* eta h) hizkia *"Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguen araudiari buruzko 2015ko martxoaren 30eko 3/2015 Legearen 15.1 artikuluak edo Autonomia Erkidegoetako dagokien arauak betetzen ez dituztela "Estatuko Aldizkari Ofizialean" jasota dagoen pertsonak kontratatzea. Ez betetzearen arrazoia da laga eta hurrengo bi urteetan zehar izandako karguaren konpetentziekin zuzenean lotutako enpresetan edo sozietateetan zerbitzuak eskaini izana. Kontratatzeko debekua indarrean egongo da kontratatutako pertsona enpresaren antolakuntzaren barruan dagoen aldi osoan zehar, eta bi urteko epea egongo da gehienez ere goi-mailako kargua lagatzen duenetik zenbatzen hasita".*

[36] Ikusi *"bateragarritasun-baldintza bereziak"* SPKLren 70.1 artikulua.

[37] SPKLren 71. artikuluaren 2. ataleko c) hizkiak kontratatzeko debeku hauek ezartzen ditu: *"Kontratuan funtsezkoak diren klausulak bete ez izana, 202. artikuluan adierazitako exekutatzeko baldintza bereziak barne, ez betetze hori pleguetan edo kontratuetan arau-hauste larri gisa definitu bada, eta enpresariaren doloa, errua edo akatsa izan bada, eta, betiere, horren ondorioz zigorrak edo kalte-ordainen indemnizazioak ezarri badira".* Atal horretako d) hizkiak hau jasotzen du: *"Errudun aitortzeko arrazoia dela eta, Lege honetako 3. artikuluan ageri den erakunde batekin sinatutako edozein kontratuk ebazpen irmoa izan badu".*

	Hala bada, deskribatu hartutako neurriak:
Operadore ekonomikoak honako hauek baiezta al ditzake?: ez diote iruzur-delitu larririk egotzi, eta eman dezake alde batera uzteko arrazoirik ez dagoela edo hautaketa-irizpideak betetzen direla egiaztatzeko eskatzen den informazioa[38] ez du informazio hori ezkutatu, atzerapenik gabe aurkeztu ahal izan ditu botere adjudikatzaileak edo erakunde esleipendunak eskatzen dituen dokumentu justifikatzaileak, eta ez da saiatu eragin txarrik izaten botere adjudikatzailearen edo erakunde esleipendunaren erabakiak hartzeko prozesuan, kontratazio-prozesuan onargarriak ez diren abantailak izateko informazio konfidentziala lortzen edo alde batera uzteko, aukeratzeko edo esleitzeko prozesuetan erabakiak hartzeko eragin handia izan dezakeen informazio okerra ematen[39]?	☐ Bai ☐ Ez

D: BOTERE ADJUDIKATZAILEAREN EDO ERAKUNDE ESLEIPENDUNAREN ESTATU KIDEKO LEGEDI NAZIONALEAN AURREIKUSITA EGON DAITEZKEEN ALDE BATERA UZTEKO BESTE ARRAZOI BATZUK

Alde batera uzteko arrazoi nazionalak	**Erantzuna**
Dagokion iragarkian edo kontratazio-pleguetan[40] zehazten diren alde batera uzteko arrazoi **nazionalak** aplikagarriak dira? Dagokion iragarkian edo kontratazio-pleguetan eskatzen den dokumentazioa eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honakoa adierazi beharko da:	☐ Bai ☐ Ez (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […][41]
Alde batera uzteko arrazoi nazionalak aplikagarriak baldin badira, operadore ekonomikoak neurri autozuzentzaileak hartu al ditu? **Hala bada**, deskribatu hartutako neurriak:	☐ Bai ☐ Ez […]

IV. zatia: Hautaketa-irizpideak[42]

Hautaketa-irizpideei dagokienez (atal honen α atala edo A-tik D-rako atalak), operadore ekonomikoak honakoa adierazten du:

α: HAUTAKETA IRIZPIDE GUZTIEI BURUZKO ADIERAZPEN OROKORRA

Operadore ekonomikoak lauki hori bete beharko du soilik lizitazioaren iragarkian edo kontratuaren klausula espezifikoen 24.1 klausulan hala adierazi bada. Hautaketa-irizpide horiek dira, hala behar izanez gero, kontratuaren klausula espezifikoen 21 klausulan adierazitakoak.

Hautaketa-irizpide guztiak betetzea	**Erantzuna**
Eskatutako hautaketa-irizpide guztiak betetzen ditu	☐ Bai ☐ Ez

[38] SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko e) hizkiak kontratatzeko debeku hauek jasotzen ditu: *"(SPKL) 140. artikuluak aipatzen duen erantzukizunpeko adierazpena egitean edo bere gaitasun edo kaudimenari buruzko bestelako datuak ematean edo, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, 82.4. artikuluan (sailkapenari buruzkoa) eta 343.1 artikuluan (lizitatzaileei eta sailkatutako enpresei buruzkoa) aurreikusitako informazioa jakinarazteko betebeharra ez betetzea"*. 71. artikuluko 2. ataleko a) eta b) hizkiek betebehar hauek ezartzen dituzte: *"esleipen-jarduera batean proposamena edo hautagaitza behar ez bezala erretiratu izana edo kontratua bere alde esleitzea eragotzi izana, 150. artikuluko 2. atalean ezarritakoa adierazitako epean ez betetzeagatik, doloa, errua edo akatsa dela eta" eta "Bere alde esleitutako kontratua formalizatzeari uztea 153. artikuluan aurreikusitako epeetan, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik".*

[39] Ikusi SPKLren 71. artikuluaren 1. ataleko e) hizkian zer ageri den kontratatzeko debeku gisa.

[40] SPKLren 71. artikuluaren 1. atalak f) hizkiak kontratatzeko debeku hauek jasotzen ditu: *"Zigor administratibo baten bidez ezarritako kontratatzeko debekua izatea, Dirulaguntza Orokorrei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legean edo Zerga Orokorrei buruzko 2003ko abenduaren 17ko 58/2003 Legean aurreikusitakoaren arabera"*.

[41] Errepikatu behar den guztietan.

[42] Ikusi kontratuaren klausula espezifikoen 21. klausulako 1etik 4rako atalak.

A: EGOKITASUNA

Lizitazioaren iragarkian eta kontratuaren baldintza espezifikoen 21.4 klausulan hautaketa-irizpideak betetzeko eskatzen zaionean soilik eman beharko du informazioa operadore ekonomikoak.

Egokitasuna	**Erantzuna**
1) Bere estatu kideko **erregistro profesional edo merkataritza-erregistro batean izena emanda dagoen figura:**[43] Dagokion dokumentazioa eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honako hau adierazi beharko da:	[…] (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
2) Zerbitzuen kontratua denean: **Beharrezkoa da baimen espezifiko bat izatea edo erakunde jakin batean afiliatuta egotea** operadore ekonomikoa ezarrita dagoen herrialdea dagokion zerbitzua eskaini ahal izateko? Dagokion dokumentazioa eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honako hau adierazi beharko da:	☐ Bai ☐ Ez **Hala bada**, zehaztu zer baimen edo afiliazio eta adierazi ea operadore ekonomikoak baldintza hori betetzen duen: [……] ☐ Bai ☐ Ez (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]

B: EKONOMIA ETA FINANTZA KAUDIMENA

Lizitazioaren iragarkian eta kontratuaren baldintza espezifikoen 21.2 klausulan hautaketa-irizpideak (kaudimen-baldintzak) betetzea eskatzen zaionean soilik eman beharko du informazioa operadore ekonomikoak.

Ekonomia- eta finantza-kaudimena	**Erantzuna**
1a) Dagokion iragarkian edo kontratazio-pleguetan eskatzen den ekitaldien kopuruan zehar **urteko negozioen bolumena** (orokorra) hau izan beharko da: Eta/edo 1b) Dagokion iragarkian edo kontratazio-pleguetan eskatzen den ekitaldien kopuruan zehar negozioen bolumena hau izan beharko da[44]: Dagokion dokumentazioa eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honako hau adierazi beharko da:	Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..] moneta Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..] moneta Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..] moneta (Ekitaldien kopurua, batez besteko negozioen bolumena): […],[…][…] moneta (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
2a) **Kontratuak barne hartzen duen jardueraren arloan** eskatzen den ekitaldien kopuruan zehar **urteko negozioen bolumena** (espezifikoa) eta dagokion iragarkian edo kontratazio-pleguetan zehazten dena hau izan beharko da: Eta/edo 2b) **Hau da dagokion iragarkian edo kontratazio-pleguetan eskatzen den arloaren eta ekitaldi-kopuruen urteko** batez besteko **negozioen bolumena**[45]: Dagokion dokumentazioa eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honako hau adierazi beharko da:	Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..] moneta Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..] moneta Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..] moneta (Ekitaldien kopurua, batez besteko negozioen bolumena): […],[…][…] moneta (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
3) Kontuan hartutako aldi osorako negozioen bolumenaren gaineko informaziorik ez badago (orokorra edo espezifikoa), adierazi enpresa sortu zen urtea edo operadore ekonomikoaren jarduerak hasi ziren urtea:	[…]

[43] 2014/24/EB Zuzentarauaren XI. eranskinean ikus daitekeen moduan, hainbat estatu kidetako operadore ekonomikoek eranskin horretan ezarritako beste baldintza batzuk bete behar dituzte.
[44] Soilik dagokion iragarkiak edo kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulak hala baimentzen badu.
[45] Soilik dagokion iragarkiak edo kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulak hala baimentzen badu.

4) Dagokion iragarkian edo kontratazio-pleguetan zehazten diren **finantza-ratioei**[46] dagokienez, operadore ekonomikoak adierazten du honako hau dela eskatutako ratioen benetako balioa: Informazio hori eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honako hau adierazi beharko da:	(Eskatutako ratioa –x eta y-ren arteko ratioa ([47])- eta baliorena: […], […][48] (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
5) Operadore ekonomikoaren **arrisku profesionalen indemnizazio-aseguruan** aseguratutako zenbatekoa hau da: Informazio hori eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honako hau adierazi beharko da:	[…][…] moneta (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
6) Hala badagokio dagokion iragarkian edo kontratazio-pleguetan zehazten diren gainerako baldintza ekonomikoak edo finantzarioak direla eta, operadore ekonomikoak honako hau adierazten du: Hala badagokio, dagokion iragarkian edo kontratazio-pleguetan zehazten den dokumentazioa eskuragarri baldin badago formatu elektronikoan, honako hau adierazi beharko da:	[…] (Webgunearen helbidea, autoritatea edo organismo igorlea, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]

C: GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Lizitazioaren iragarkian eta kontratuaren baldintza espezifikoen 21.2 klausulan hautaketa-irizpideak (kaudimen-baldintzak) betetzea eskatzen zaionean soilik eman beharko du informazioa operadore ekonomikoak.

Gaitasun teknikoa eta profesionala	**Erantzuna**
1) Hornikuntzen kontratu publikoak edo zerbitzuen kontratu publikoak baldin badira soilik: Erreferentziazko aldi osoan zehar[49], operadore ekonomikoak **zehaztutako entrega espezifiko hauek egin ditu edo zehaztutako zerbitzu nagusi hauek eskaini ditu:** Zerrenda egitean, adierazi zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak[50]:	Urteen kopurua (aldi hori zehaztuta dago dagokion iragarkian edo kontratazio-pleguetan[51]): […] Deskribapena | Zenbatekoak | Datak | Hartzaileak | | | | | | | | | | | |
2) **Teknikari edo organismo tekniko**[52] hauetara joan daitezke, batez ere kalitatearen kontrolaz arduratzen diren pertsonak: Obren kontratu publikoen kasuan, operadore ekonomikoak teknikari edo organismo tekniko hauengana jo dezake obra exekutatzeko:	[…] […]
3) **Instalazio tekniko eta neurri** hauek erabiltzen ditu **kalitatea bermatzeko** eta **aztertzeko eta ikertzeko bitarteko** hauek ditu:	[…]
